

Sakanan dauden lau etxebizitzetatik hiru etxebizitza nagusia dira; bestea ezohiko etxebizitza da / 6-7

Baso kudeaketari buruzko bi interpretazio panel jarri ditu Altsasuko Udalak / 5

Ardoiko jokalaria ohi Misiegok ez du baztertzen entrenatzera bueltatzea / 12

Pentsiodunen eskaerak alderdiek bere egitea eta gobernuak pentsioak osatzea eskatu dute / 8

Mikel Zufiaurrek altsasuar zaldizkoak urrea eskuratu du Espainiako TREC Txapelketan / 11

Urmuga mendia eta musika uztartzen duen proiektua ostegunean Aralarren izanen da / 23

Dantza mundiala

Paula Urabayen Ochoa-Aizpurua dantzari altsasuarrak Dance World Cup txapelketan parte hartu du, Portugalen / 2-3



"Mundiala txikitatik amestu dudan zerbait izan da"

PAULA URABAYEN OCHOA-AIZPURUA DANTZARIA

Duela bi urte hasi zen dantza lehiaketetan parte hartzen, eta uztailan Portugalen jokaturako Dance World Cup munduko dantza txapelketaren finalean parte hartu du

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Dance World Cup txapelketa dantzaren Olinpiadak direla diote, eta kirolerako txapelketa izango balitz, telebistan emitituko lukete. Ekainaren 30etik uztailaren 7ra 62 estatutako 120.000 dantzari parte hartu zuten Bragan (Portugal) jokaturako finalean eta, tartean, altsasuar bat zegoen: Paula Urabayen Ochoa-Aizpurua. Dantzari gazteak Burgosen jokaturako Espainiako kanporaketan lortu zuen mundialean parte hartzeko txartela, bigarren gelditu ondoren. Junior mailako Lirika kategorian parte hartu zuen, eta sailkapenaren erdialdean gelditu zen, 86,5 punturekin.

Noiz hasi zinen dantzan?

Lau urterekin hasi nintzen dantzan. Etxean amak etengabe dantzan ari nintzela ikusten zuen, eta Iruñeko dantza eskola batean sartu ninduen. Beraz, Iruñean hasi nintzen lau urterekin, eta bertan jakin nuen gustatzen zitzaidana zela.

Noiz igo zinen lehenengo aldiz oholtzara?

Altsasuko Iortia kultur gunean, sei urterekin. Iruñean urtebete

egon nintzen eta, ondoren, Irantzu Gonzalez Altsasura etorri zen eta kiroldegian dantza klaseak ematen hasi zen. Berarekin hasi nintzen. Bost urterekin hasi nintzen eta sei urterekin igo nintzen lehenengo aldiz eszenatokira.

Zein izan da zure ibilbidea?

Bost urteetatik Irantzu Gonzalez Dantza Eskolan egon nintzen, baina hamar urterekin edo gehiago behar nuen. Balleta egin nahi nuen. Jende guztiak esaten zidan dantza perfektua, garbia eta elegantea izateko balleta oinarria zela, eta Irantzuk Iruñeko Almodena Lobonera joatea gomendatu zigun, berak bertan ikasi zuen. Aurten arte bertan egon naiz, eta bertako ikuskizunetan parte hartu izan dut. Aurreko urtean Irantzu Dantza Eskolarekin dantza lehiaketetara joaten hasi nintzen. Ilusioa egiten zidan ikustea zer nolako maila zegoen, baita jakitea zein ziren nire egoera eta maila ere. Orduan, bi urte daramatzat lehiatzen eta mota guztietako oholztatan dantzatzeko.

Lehiaketetan parte hartzen, eta irabazten. Espero zenuen?

Aurreko urtean Orbe Burgos eta Dance World Cupen lehiatu nintzen, eta Orben irabazi nuen; baina Dance World Cupean ez nuen ezer egin. Iaz ere Euskadiko Dantza Txapelketan Berriztu taldean ordezkapen bat egin nuen. Aurten Orbe Burgosen (bigarren saria), Espainiako Dance World Cup (bigarren saria eta finalerako sailkapena) eta Madrilgo Bsdansa txapelketan (lehenengo saria) aritu naiz bakarlarik bezala eta ordezkapenak egin ditut ere, esaterako, Avilan.

Mundialerako sailkapena espero zenuen?

Ez nuen espero. Txapelketa bakarra zen ez nuena ezer espero. Txapelketa oso serioa zen: lehiakide guztiak ilara batean jarri gintuzten aktuzio ordenan antolatuta eta entrenatzaileak eszenatokiaren beste aldera bidali zituzten. Ingelesekin hitz egiten zuten, gainera. Besteak entseatzeko ikusten nituenean "zer egiten dut hemen!" pentsatu nuen. Dena oso profesionala zen, beste dantzariak kontserbatoriokoak ziren, oso prestatuta joaten ziren, eta

irakasleak edo entrenatzaileak oso zorrotzak ziren neskekin... Pentsatu nuen beste urte batez probatzera eta esperientzia biziitzera joaten nintzela, besterik gabe. Irabazi nuenean ezin nuen sinistu.

Nolakoak dira dantza lehiaketak?

Txapelketaren arabera da. Adibidez, Orben oso familiaritakoa da. Dantza eskolak elkar ezagutzen dugu eta gure artean familia bat bezalakoak gara. Entrenatzailea zurekin eszenatoki-raino joan daiteke. Sariak parte hartzaile guztiak eszenatokiaren gaudela ematen dituzte. Dance World Cup-en dantzatu baina ordubete lehenago sartzen zara txapelketara, ahal duzun tokian entseatzeko duzu eta gutxi gorabehera zure aktuatze ordua iristen denean, behera, eszenatokiara, jaisten zara.

Dantzaren Olinpiadak direla esaten dute. Nola izan da bertan parte hartzea?

Oso arraroa izan da. Txikitatik amestu dudan zerbait izan da. The Next Step telebista saioa ikusten nuen; programa honetan dantza lehiaketetan parte hartzen zuten taldeek parte hartzen zuten, eta, bat-batean, ni bertan nengoan, horietako txapelketa batean nengoan. Amets batean nengoan. Lehenengo egunean selekzioen desfilea izan zen. Nor bere taldearekin joaten zen, plaza batean bildu ginen delegazio bakoitza eta selekzioa esaten zutenean ateratzen ginen desfilean herrian zehar. Bertakoak

"LAU URTEREKIN HASI NINTZEN DANTZAN; ETXEAN ETENGABE ARI NINTZEN DANTZATZEN"

"DANCE WORLD CUP TXAPELKETA BAKARRA ZEN EZ NUELA EZER EZ ESPERO"

kaleetan animatzen zeuden... Desfilea ekainaren 30ean izan zen, eta nik uztailaren 5ean dantzatu nuen. Egun horietan nahiko gaizki pasa nuen; lasaitu nahi nuen eta bidaiatzeko disfrutatu, baina ikusten nituen toki guztietatik mundialeko neskek: Irlandako selekzioarekin bat, Mexikoko selekzioarekin beste... Dena zegoen selekzio desberdinetako jendez beteta, eta ezin nintzen lasaitu. Gurasoei etxera entseatzera joan nahi nuela esaten nien. Etxera joan ginen, eta bertan entseatzeko tokia oso txikia nuenez, kolpe bat hartu nuen aulkiarekin. Badaezpada erabaki nuen gehiago ez egitea.

Nolakoak izan ziren oholtzara aterako aurretiko momentuak?

Irantzu nirekin zegoen eta esan nion entseatu behar nuela. Ezin nintzen eszenatokiara aterako dantzaren puntu ahulenak entseatu gabe. Iskin batera joan ginen eta ez zitzaizkidan ateratzen. Irantzuk esan zidan lasaitzeko azkenean aterako zitzaizkidalako, azken finean zorua ez da egokiena eta ezin ziren birak eman. Nire kategorian hasi zenean behera jaitsi ginen eta bertan nire blokeko dantzari guztiak zeuden. Areta bat zegoen linoleo lau zatitxoekin, eta bertan itxoin behar izan nuen bertan probak egin ahal izateko; orduan, beste guztiak ikusten nituen: neska batek hanka buuruaren gaineraino igotzen zuten, beste batek mugimendu oso berezi bat egiten zuten, beste bat negarrez sartu zen, beste bat erori zen eta irakasleak errieta egin zion esanez erori zela pausua gaizki egin zuelako... Urduriago jarri nintzen.

Urduri aterako zinen?

Oso. Dantza hasi aurretik, musika jartzen duten arte, momentutxo bat izaten dut bi aldiz arnasten dudala, lurrera begiratzen dut, eskuak estutzen ditut eta aurrera begiratzen dut. Hori beti egiten dut, gortinetan aterako aurretik edo eszenatokiaren nagoenean, koreografia hasi aurretik.



EGOKI
Ventanas PVC Leihok

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea • Olazti

EROSOTASUNERAKO PENTSATUAK

Diseinu soileko lehiak berriak

Erakusketa: Olite kalea 16 • Iruñea





Paula Urabeyen dantzari altsasuarra Portugalgo Dance World Cup-aren photocall-ean posatzen. UTZITAKOA

Zure koreografiak sortzen dituzu, dantza eskolako irakasleen laguntzarekin. Nola sortzen duzu.

Koreografiaren araberakoa izaten da. Aurreko urtekoan inspirazioa erraz etorri zitzaidan eta aurreko askoz gehiago kostatzen zait. Egun asko egon nintzen entseatzeko ez zitzaidala ezer bururatzeko, ez nuen ezer sortzen, bideoak ikusten nituen eta pentsatzen nuen nik hori ezin nuela egin, amari deitzen nion esanez ezin nuela. Egun batean esan nuen: Ez naiz agobiaturik, begiak itxiki ditut, jarriko dut egitea gustatuko litzaidakeen abestia, eta sortzen dena. Orduan, pausu oso txikiak etorri zitzaizkidan eta dantzaren zatia koreografiatu nuen. Gero akrobaziak, birak eta horrelakoak sartu nituen, ikusgarritasun puntuak gehitzen dituzten elementuak.

Aurretik epaimahaiaren puntuatzeko jarraibideak ezagutzen dituzue?

Oso subjektiboa da. Pauta bat dute, eta adibidez akrobazia gehiegi sartzen badituzu zigortzen zaituzte akrobazietarako beste kategoria bat dagoelako. Lirikoa teknikoagoa izan behar da. Baina epaimahaiakide bakoitzak estilo batekoa izan ohi da. Esaterako, aurreko urtean epaimahaiakide bat Espainiako selekzioa gimnasia erritmikoko kidea zen, akrobaziak gehiago puntuatu zituen eta irabazi zu-

ten akrobatagoak eta gimnastagoak zirenak. Aurten oso ongi egin dute akrobazia gehiago sartzen bazenituen zigortzen zutelako, mugimendua eta adierazpena gehiago bilatu dute. Mundialerako sailkatu ginen lauak oso sentikorak ginen, oso lirikoak.

Noiz hasi zinen prestatzen? Zenbat entseatu duzu?

Lehiaketak martxoan hasi ziren eta hilabete bat lehenago hasi nintzen prestatzen. Nahikotxo kostatu zitzaidan dantza bukatzea; txapelketa baino aste bat lehenago koreografiari kaña ematen egon nintzen. Baina dantza bukatzea asko kostatu zitzaidan, hilabete egon nintzen, eta azken astera arte ez nuen findu.

Koreografian aldaketak egin dituzue?

Lehiaketa bakoitzean aldatzen joan naiz. Orbeo koreografia ikustean, lehenengo izan zena, eta Munduko txapelketarena, azkena izan dena, guztiz desberdina da. Beste puntu bat emango zioten gauzak aldatu ditut edo besterik gabe oholtzara igotzen nintzenez eta zerbait oso polita ateratzen zitzaidanean hurrengorako gordetzen nuen. Bideoekin laguntza izan dut; bertan ikusten nituen aurretik prestatu ez nituen gauzak ateratzen zitzaizkidalda, eta hurrengoan sartzen nituen.

Nola deskribatuko zenuke koreografia hitzez?

Nik istorio bat sortzen dut; dantzaren bidez istorioak kontatzea gustatzen zait. Orduan, abesti oso hunkigarria zen, Valeria Castroren Cuídate, eta nik asmatu nuen pertsona batek gaixotasun bat zuela eta gaixotasun hori ari zaio etengabe pertsonari bizitza kentzen saiatzen. Dantzarekin abestiaren momentu delikatueta erortzen naiz, baina beti altxatzen lortzen dut. Iristen da momentu bat gehiago ezin dudana, dantza amaitzen denean, hilda bukatzen dudala. Oso dramatiko eta emotiboa da.

Nolakoak izan ziren azken asteak?

Zaila izan da entseatzeko gauza asko zeudelako, baina aurreko astean praktikoki egunero joan nintzen eskolara eta ni saiatzen nintzen gauza gehiago eta berriak sartzen mundial batera nindolako. Uste nuen koreografia %100ean egoteko hobetu behar nuela. Jendeari erakusten nion eta esaten zidan dantza oso-ongi zegoela, ez saiatzeko publiko harritzeko gauza gehiago sartzen, zegoena perfektua zelako. Eta arrazoia zuten, eraman nuen aurretik entseatu nuen bezala.

Azken egunetan entseatzeko gomen-dagarria da?

Batzuetan kalterako izan daiteke. Kolperen bat hartu nuen, eta eskerrak Portugalen deskantsatzeko aukera izan nuela.

Errusiako Balletaren kanpua 2021ean, Madrilgo 180 dantza eskolan ikastaroa 2022an... Udak dantzan pasatzen dituzu.

Dena ustekabekoa izan da. Ez nuen espero Errusiako Ballet kanpusean hartuko nindutenik, aurreko urtean ez nuen espero Orben 180 eskolan ikasteko beka bat ematea eta aurten ez nuen espero mundialeterako sailkatzea. Gauzak etortzen joan dira; sorpresaz. Esperientzia guztiak oso garrantzitsuak dira.

Eta mundiala nolako esperientzia izan da?

Hau desberdina izan da. Bestetan beldurrez joaten nintzen ea gustatuko zitzaizen nola dantzatzen naizen, aste batean dena erakutsi behar duzulako. Kasu honetan, aurretik ikusi ninduten eta mundialera joateko prest

"DANTZAREN BIDEZ ISTORIOAK KONTATzea GUSTATZEN ZAIT; HAU HUNKIGARRIA ZEN"

"DANTZA OSO GUTXI BALORATUTA DAGO; TXAPELKETA TELEBISTAN BOTATZEKO ZEN"

nengoela ikusi zuten, eta sinetsi nuen. Epaimahai profesional batek erabaki zuen bertan egon behar nintzela. Alde horretatik lasaiago joan nintzen. Inoiz gertatzea espero ez nuen gauza bat izan da, txikitari amestutako zerbait eta errealitatean ikustean ezin nuen sinistu. Dantza oso gutxi baloratuta dago eta horrelako zerbait, Olinpiaden antzerako zerbait, telebistan ikusten dituzu, eta hau telebistan botatzeko modukoa zen. Presioa ere handia da; epaimahaiak oso profesionalak dira, goi mailako konpainia ospetsuenetako zuzendariak, dantza konpainia ospetsuen lehenengo dantzariak... Soilik horrelako profesionalen aurrean dantzatzea asko da. Dantzaren mundua oso handia da, eta hor dakizuna egiten erakustea oso handia den zerbait da.

Lesio batekin joan zinen, gainera.

Lesioagatik klasikoa alde batera utzi behar izan dut, eta egia da klasikoaren beharra nabaritu dudala. Klasikoa egin gabe denbora tarte bat egoten zarenean asko nabaritzen da, galtzen duzu, eta horrek baldintzatu nau. Mundialean lesioagatik pausu txar bat egin nuen, oinak momentu batean huts egin zidan, eta ahal izan nuen moduan berreskuratzea lortu nuen, baina lesionatuta dantza egitea arriskutsua da. Esginze bat egin nuen eta belauan ubeldura bat, baina zerbait larriagoa izan zitekeen. Azkenean, hobe da gelditzea eta guztiz osatzea.

Zer sentsazioekin gelditu zinen?

Aurrera jarraitzeko gogoz. Oso pozik gelditu nintzen, zure koreografiak sortzen dituzunean nahi duzuna erakusten duzu; nahi duzuna transmititzen eta adierazten duzu. Nik oso estilo desberdina daukat lehiatu nintzen beste dantzariekin alderatuta, eta hori erakutsi nahi nuen ere: lirikoa teknikatik harago dago, beste modu batekoa izan daiteke ere, sentimendu eta adierazpen gehiagorekin.

Datorren urtean txapelketetan parte hartuko duzu?

Irantzuk aukera ematen badit, nik guztia emango dut eta egin ditudan koreografiak gaintzen saiatuko naiz.

Zer gelditzen zaizu egiteko?

Dena. Baina hurrengo helburua kontserbatorio batean sartzea da. Kontserbatorioan sartzeko prestatu nahi dut.



ASTEKOA

JAVIER CASTEIG BARANDIARAN

Oreka linguistikoa

Bada urtebete, gutxi gorabehera, gonbidapena jaso nuela kazeta honetan noizbehinka zutabea idazteko.

Erantzuna eman baino lehen, zalantza beteta, tarte bat hartu nuen pentsatzeko, eta azkenean, onartu.

Ez nekien zertaz idatziko nuen, ezta idazteko tartearekin moldatuko nintzen ere. "Irakaskuntzaz edo matematikaz idatzi beharko dut" pentsatu zuen.

Bada, lehenengo zutabea, neure buruaren nolabaiteko aurkezpena egin nuen, eta beste guztietan, batean izan ezik, zein Emakumearen Nazioarteko Egunarekin bat zetorren, Euskararekin, zeharka edo zuzenki, zer ikusirik zuten gaiak jorratzera behartuta sentitu naiz.

Sasoiko azken idazki honetarako ez nuen inolako asmorik berriz gai berbera plazaratzeko baina, ezinbestean, egin beharko dut.

Aurreko astean, Euskararen erabileraren eta normalizazioaren aldeko neurrien kontrako epai judizialen segidak beste kapitulu bat izan zuen. Kasu honetan,

Espainiako Auzitegi Konstituzionalak EAEko udal legeak udalei euskara hutsean jarduteko ematen dien artikulua deuseztatu zuen, oreka linguistikoa argudiatuta.

Oreka linguistikoa. Ez naiz sartuko beste ondorioetan baina orekarena, hobeto

OREKA ESKAINI BEHAR DUGUNOK, NEKEZ LORTZEN DUGULA OREKA HORRETARA HURBILTzea ERE

esanda, desorekarena ongi ezagutzen dut.

Administrazioan urte luzez lan egin ondoren, esan dezaket, zalantza izpirik gabe, desoreka dela euskararen kalterako eta oreka eskaini behar dugunok, gurea bezalako eremu elebidunetan, saiatuta ere, eta hamaika buelta eman ondoren, nekez lortzen dugula oreka horretara hurbiltzea ere. Honetarako Konstituzionalak ez du epairik?

Akabo irakurleok, heldu den saioan ere hemen jarraituko dut eta gustura idatziko nuke beste gairen batez, baina ez dakit utziko didaten. Opor onak izan.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Festetan ere... denak etxera!

SAKANAKO SARE

Esperantza garaietan bizi gara euskal presoan gaian. Gizartearen mobilizazioari eta ekimen politiko, juridiko eta sindikalei esker, etapak ixten joan gara, pixkanaka gauzatzen joan dadin gure leloa: ETXERA.

Herriaren ahaleginak lortu du bukatzea urrutze politikak zekarren eskubide urraketa, 34 urtetan baino gehiagotan espetxeetan ez ezik senideen artean ere hainbeste sufrimendu eragin duen politika horrek.

Beste etapa batean sartu gara: preso, erbesteratu eta deportatuak etxera itzultzeko bidea irekitzekoa: ETXERA.

ETak jarduera armatua bukatzeko erabakia hartu eta hamabi urtera, eta bere burua desegin eta bost urte baino gehiago pasatu ondoren, ezin da jarraitu Euskal Herrian ezer aldatu ez balitz bezala.

Ez dago inolako justifikaziorik salbuespen juridikoari eusteko, eta, horregatik, konpromiso irmoa eskatzen diegu eragile politiko, sindikal eta sozialei, kartzeletan gaur egun ere pairatzen duten salbuespen egoera behingoz buka dadin.

Askotan esan dugu ez dugula pribilegioarik eskatzen preso horientzat. EZ. Legezketasuna eskatzen dugu.

Eta eskubideak aldarrikatzen ditugu. Eskubidea dutelako etxerako bidea egiteko. ETXERA Bai, etxean nahi ditugu. Eta helburu hori errealitatea izan dadin, den-denok behar zaituztegu. Hau ez da errebindikazio alderdikoia edo ideologikoa. Askatasunik gabe urteak eta urteak daramatzaten horien giza eskubideak errespetatu daitezela exijitzen dugu, besterik ez.

Horregatik guztiagatik, gure eskaera da batera egitea Sakanako herrietako festen ospakizunak eta eskubide horien errebindikazioa: ETXERA. ETXERA ETA ETXERA!!

ZUZENKETA

Joan zen astean, 8. orrialdean, etxarri batek, Rosariok, ehun urte bete zituela eta Etxarri Aranazko Udalak opariak eman zizkiola jakinarazi genuen. Omenduaren abizenak, ordea, gaizki eman genituen, bera Rosario Maiz Navarro baita. Barka nahasmena.



OBJEKTIBOTIK



Nafarroa Oinez 2023
@Nafarroa_Oinez

UZTAILAK 11. Asteartea da dagoeneko eta Oinez Txokoa topera jarraitzen dugu; hona hemen egunak utzitako irudi ederrak:

#HotsEin #OinezTxokoa #NafarroaOinez

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Idoia Artieda Larraza

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidor Betelu Ganboa
Iñaki Rubio Mendoza
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Iñe Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Baso kudeaketari buruzko panelak jarrita

Basoa nola eta zertarako kudeatzen den jakin nahi duenak basoan dagoen Dameroen bidea hartu eta han udalak jarritako bi informazio panelak irakurtzeko aukera du. Ikastetxeen parte hartzearekin egin dira

ALTSASU

Altsasuko Udalak baso kudeaketari buruzko bi interpretazio panel jarri zituen garagarri akaberan. Bizibiziki SMU enpresak jarri ditu eta udalak 11.830 euro (BEZ kanpo) ordaindu dizkio. Dameroen ibilbidetik pasatzen direnak haien parean gelditu eta irakurtzeko aukera dute. Paneletako bat, haritz hostoaren itxura duena, Basoixiren historiaren berri ematen du, baita Txanponazpi zergatik deitzen zen azaldu ere. Bigarren panelak, berriz, baso ustiaketa iraunkorraren gakoak zein diren azaltzen du. Besteak beste, mintegiez, landaketaz, bakanketaz, birsortze naturalerako mozketaz, prozesatzeaz eta biomasaz azalpenak ematen ditu.

Bi paneletan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen mailako ikasleek egindako marrazki batzuk ere ikus daitezke. Izan ere, panelak egin aurretik Altsasuko Udalak ingurumen



Dantzalekutik San Pedro zelaira daraman bidexkaren ertzean dauden panelak.

hezkuntzako tailerrak antolatu ditu ikastetxeetan. Tailerrek bi zati izan zituzten, alde batetik, basora joan eta zuhaitz espezieen inguruko informazioa ikasleei ematea. Eta, bestetik, baso kudeaketaren berri ematea. Ingu-

rumen hezkuntzako tailerrak Altsasu DBH institutuan, Sagrado Corazon ikastetxean eta Iñigo Aritza ikastolan eman ziren. Eta, esan bezala, ikastetxe horietako ikasleek egindako marrazkiak dirak paneletakoak.



Azoka toki bakar batean

Hainbat altsasuarrek eta aldameneko herritarrek bertan egiten dituzte beraien erosketak Altsasuko azokan. Asteazkenean joan zirenak salmenta postu guztiak estalpearen azpian eta Baratzekobide plazan opatu zituzten. COVID-19 gaitza zela eta, Altsasuko

Udalak azoka bitan banatzea erabaki zuen eta 2020ko garagarriaren 3tik Zumalakarregi plazan arropak, oinetakoak eta etxerako tresneria zeuden salgai, eta Baratzekobide plazan, berriz, jatekoak. Azoka kokapen hori 2009ko ilbeltzaren 21ean mustu zuen.



UTZUBARTXOREN TXOKOA

Kaixo! Utzubartxo naiz, urtero martxo aldera Arbizuko UtzubarEKOgunera hurbiltzen naizen sai edo putre zuria. Sakanan hilabete batzuk pasatzen ditudanez, tarte horretan Sakanako Mankomunitatearen Hondakin Zerbitzuko mezulari bihurtuko naiz.

Sekulako zortea duzue Sakanan! UtzubarEKOgunean kokatutako Sakanako Konpost Plantan sortzen den konposta mugagabe eta dohainik eskuragai izatea izugarria dela iruditzen zait.

Konpostari zenbait lekutan "urre beltza" deitzen diote eta ez naiz harritzen, urrea balio du eta!

Sakanako konpostak eskeintzen dizkigun onura zuzenak, batzuk aipatzekotan:

- Sakandarrok etxean bereizitako gai organikoarekin eta bertako inausketekin egindako produktua da, zikloa Sakanatik aterata itxiz.
- Landareen garapenerako beharrezko elikagarriak ematen ditu modu naturalean
- Lurzorurako eta laborantzarako mikroorganismo onuragarriak ditu.
- Ongarri ez-organikoak ordezkatzeko ditu.

Etxean konposta egiten baduzu edo auzokonpost gune baten erabiltzaile bazara onura hauek biderkatu egiten dira, 0 km-ko konposta lortzen duzulako. Gogoratu lur zatitxoa baduzu etxe ondoan doako konpostagailua lortu dezakezula UtzubarEKOgunean.

Etzeko konposta edo auzokonposta egiteko aukerarik ez baduzu, gai organikoa etxean bereizi eta edukiontzi marroira bota poltsa konpostagarri batean edo pertza marroian zintzilikatu postean, dagokion egunetan.

Horrela, Tuterako El Culebrete zabortegean bota beharrean, baliogarria den konposta sortuko da konpost plantan eta gainera hondakin tasan hoberia izango duzu.

Baratz eta landare garaia da... Landatu itzazu barazki organikoak eta apaindu karrikak lore ederrez! Aukera probestu eta zoaz konposta eske UtzubarEKOgunera!

Mank
s a k a n a



Financiado por el
Fondo de Residuos
Hondakinen Funtzak
Finantzatuta



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Utzubartxoren Txokoa Nafarroako Hondakinen Funtsak finantziatu du. Hondakinen Funtsa bereizi ez diren hondakinak zabortegean isurtzeagatik ordaintzen den zerga baten bitartez jasotako diruarekin hornitzen da.

Ibarrean dauden lau etxebizitzetatik hiru etxebizitza nagusiak dira

Sakanan 2022ko urte akaberan 10.580 etxebizitza zeuden. Haietatik 8.199 etxebizitza nagusiak ziren eta gainontzeko 2.381 ezohikoak diren etxebizitzak. Sakandar bakoitzeko 1,93 etxebizitza zeuden

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Nafarroako Estatistika Erakundeak, Nastatek, kalkulatu duenez, foru erkidegoan 329.412 etxebizitza zeuden 2022ko abenduaren 31n, aurreko urtean baino %0,6 gehiago. Etxebizitza horien %3,21 Sakanan zeuden, bestalde sakandarrak nafarren %3,06 gara. Iturri beraren arabera, ibarrean etxebizitza parke handiena duen herria **Altsasu** da, %34,41 (3.641 etxebizitza), hau da, altsasuar bakoitzeko 2,06 etxebizitza daude. **Etxarri Aranatzek** etxebizitzen %12,37 ditu (1.309 etxebizitza; 1,91 etxarriarreko). **Irurtzunen** Sakanako etxeen %9,15 daude (968; 2,38 etxebizitza irurtzundarreko). **Olatzagutiak** ibarreko etxebizitzen %8,26 ditu (874; 1,70 olaztiarreko). **Lakuntzan** daude ibarreko etxebizitzen %6,54 (692; 1,85 lakuntzarreko). **Arakilen**, berriz, etxebizitzen %5,47 daude (576; 1,67 arakildarreko). **Arbizun**, aldiz, etxebizitzen %5,09 daude (538; 2,09 arbizuarreko). **Uharte Arakili** dagokionez, etxebizitzen %4,44 ditu (470; 1,68 ubertearreko). **Urdiainek** %3,47ko ekarpena egiten dio Sakanari (367; 1,73

urdirarreko). **Ergoienan**, berriz, etxebizitzen %2,68 daude (284; 1,31 ergoendarreko). **Iturmendik** ibarreko etxebizitzen %2,45 ditu (259; 1,62 iturmen-diarreko). **Ziordian** daude etxebizitzen %2,10 (222; 1,56 ziordiarreko). **Bakaikuk** %1,94 du (205 etxebizitza; 1,73 bakaikuarreko). Azken aurreko postua **Irañetaren** %0,9ak du (98; 1,70 irintarreko). Zerrenda **Arruazuk** ixten du etxebizitzen %0,70rekin (74; 1,43 arbazuarreko).

Etxebizitza nagusia eta ezohikoa

Nafarroako etxebizitzen %78,77 (259.505) etxebizitza nagusia zen eta %21,22 (69.902) ezohikoa; Sakanan %77,50 (8.199). Ibarreko batz besteko hori nabarmen gaitzen du Irurtzunek, etxebizitzen %90,70 (878) etxebizitza nagusi baitira. Hau da, **Irurtzunen** ohikoak ez diren etxebizitzak (bigarren etxebizitzak edo hutsik daudenak) %9,30 besterik ez dira (90). **Altsasun** etxebizitza nagusiak %85,17 dira eta ezohikoak %14,83 (3.101 eta 540). Ibarreko batz bestekora gutxiatik ez dira bi herri iristen. **Etxarri Aranatzek** etxebizitza nagusiak %77,31 dira eta ohikoak ez direnak %22,69 (1.012 eta 297). **Arbizun**, berriz, %75,28 etxebizitza nagusia da eta %24,72 ezohikoa (405 eta 133). Antzeko kopuruak dituzte **Lakuntzak** eta **Urdiainek**. Aurrenekoan %71,53 dira etxebizitza nagusiak eta %28,47 ezohikoak (495 eta 197). Atzenekoan, berriz, %71,39 dira nagusiak eta %28,61 ohikoak ez direnak (262 eta 105). **Bakaikun** %70,24 etxebizitza nagusi dira eta ezohikoak %29,76 (144 eta 61).

Ondoren lau herri heldu dira. **Ziordian** etxebizitzen %69,37

nagusiak dira eta %30,63 ezohikoak (154 eta 68). **Olatzagutian** etxebizitzen %68,99 nagusia da eta %31,01 ezohikoa (603 eta 271). **Uharte Arakili** dagokionez, %68,51 etxebizitza nagusia da eta %31,49 ezohikoa (322 eta 148). **Arakilen** etxebizitza nagusiak %67,88 dira eta ezohikoak %32,12 (3939 eta 186). Azken lau udalerrien etxebizitza nagusien kopuruak Sakanaren batz bestekoaren azpitik nabarmen daude. **Arruazun** etxebizitza nagusiak %62 dira, ezohikoak, berriz, 37,84 (46 eta 28). **Irañetan**, berriz, nagusiak %61,22 dira eta ezohikoak %38,78 (60 eta 38). **Iturmendiri** dagokionez, etxebizitza nagusiak %60,62 dira eta ezohikoak %39,38 (157 eta 102). Zerrenda **Ergoienak** ixten du, etxebizitza nagusien %58,80 eta ezohikoen %41,20rekin (167 eta 117). Sakanan ezohiko etxebizitzak %22,50 da (2.381).

Urtetik urterako aldea

Sakanako etxebizitza parkea 2021etik 2022ra 0,24 puntu hazi zen 25 etxebizitza gehiago zeudelako. Nafarroan hazkundera 0,6koa izan zen. Hala ere, urte arteko aldaketa ez zen herri guztietan bera izan. Batz bestekoaren gaitetik eta, beraz, etxebizitza gehiago zeuden Iturmendin (2,78), Urdiainen (1,66), Arruazun (1,37), Arbizun (0,56) eta Lakuntzan (0,29). Kopurua gutxiago hazi zen Etxarri Aranatzek (0,23), Olatzagutian (0,11) eta Irurtzunen (0,10). Altsasun hazkundera apenas nabaritu zen (0,03) eta gainontzeko herrietan ez zen aldaketarik izan.

Nastaten arabera 2021etik 2022ra ibarrean 109 etxebizitza nagusi gehiago zeuden, 1,35 gehiago. Ezohiko etxebizitzen kopurua, berriz, 74 gutxiago zen,



Irurtzuno herrigunearen ikuspegia. ARTXIBOA

10,45eko jaitsiera. Lehen batz bestekotik nabarmen gorago dago **Arruazu**. 2021etik 2022ra etxe nagusiak %9,52 hazi zen 46 izatera iritsiz, eta ezohiko etxebizitza 9,68 jaitsi, 28 zeudelarik egoera horretan. **Ergoienan** etxebizitza nagusien kopuruak %3,73 hazi zen eta ezohikoena %4,88 jaitsi (167 eta 117). **Iturmendin** etxebizitza nagusien kopurua %2,61 handitu zen eta ezohikoena %3,03 handitu. **Arakilen** 2,34 hazkundera izan zuten alde batetik eta %4,62ko jaitsiera bestetik. **Altsasun** urte batetik bestera etxebizitza nagusiak %2,11 hazi ziren eta ezohikoak 10,45 jaitsi. **Uharte Arakilen** aurreneko parametroa 1,58 hazi zen eta atzenekoa, berriz, 3,27 jaitsi. **Olatzagutian** eta **Arbizun** antzeko izan zen aldaketa. Lehendabiziko herrian %1,01 hazi zen etxebizitza nagusia eta %1,81 jaitsi ezohikoa. Bigarrenean, berriz, nagusiak %1 hazi ziren eta ezohikoak %0,75 jaitsi.

Hiru herritan etxebizitza nagusien hazkundera puntu batetik beherakoa izan zen. **Etxarri Aranatzek**, esaterako, 0,80oa eta ezohikoa 1,66 jaitsi da. **Urdiainen** igoerak %0,77koa eta 3,96koa izan ziren. **Lakuntzan** etxebizitza nagusia eta ezohikoa igo ziren, %0,20 eta %0,51. **Irañe-**

ta zegoen bezala gelditu zen. Eta gainontzeko hiru herrietan etxebizitza nagusiaren kopuruak behera egin zuen. **Irurtzunen** %0,23 egin zuen behera eta ezohikoak, berriz, 3,45 gora. **Ziordian** etxebizitza nagusiaren kopurua %0,65 jaitsi eta ezohikoa 1,49 hazi zen. Azkenik, **Bakaikun**, %0,69ko jaitsiera eta %1,67ko igoera izan ziren.

Etxebizitzak biztanleko

Ibarrean 2022ko ilbeltzaren lean 20367 sakandar bizi ginen. Bakoitzeko 1,93 etxebizitza zegozkigun. Bestetik, etxebizitza nagusi bakoitzeko 2,48 sakandar zeuden, eta ezohiko etxebizitzen kasuan 8,55 sakandar. **Irurtzunen** etxebizitza bakoitzeko 2,38 irurtzundar zeuden, etxebizitza nagusi bakoitzeko 2,62 eta ezohiko bakoitzeko 25,54. **Arbizuko** etxebizitza parkeko eraikin bakoitzeko 2,09 arbizuar zeuden, etxebizitza nagusi bakoitzeko 2,78 eta ezohikoetan 8,45. **Altsasun** etxebizitza bakoitzeko 2,06 altsasuar zeuden, nagusien kasuan 2,42 eta ezohikoetan 13,90.

Etxarri Aranatzko etxebizitza bakoitzeko 1,91 etxarriar zeuden, etxebizitza nagusien kasuan 2,48 ziren eta ezohikoetan 8,44. **Lakuntzan** 1,85, 2,59 eta 6,51 ziren. **Bakaikun** etxebizitza bakoitze-


TX
TXARTEL

Ezagutu gure
webgune berrial

www.txartel.net

Azkarra, dinamikoa
eta oso inliutiboa.

Sakanako etxebizitza parkea



ko 1,73 bakaikuar daude, etxebizitza nagusi bakoitzeko 2,47 eta ezohiko bakoitzeko 5,82. **Urdiainen** 1,73, 2,43 eta 6,06 ziren. **Irañetan** etxebizitza bakoitzeko 1,70 irintar zeuden, etxebizitza nagusi bakoitzeko 2,78 eta ezohiko bakoitzeko 4,39. **Olatzagutian** 1,70, 2,47 eta 5,50 ziren. **Uharte Arakilen**, berriz, etxebizitza bakoitzeko 1,68 ubertear zeuden, etxebizitza nagusi bakoitzeko 2,46 eta ezohiko bakoitzeko 5,34. **Arakilen** 1,67, 2,46 eta 5,20 ziren. **Iturmendiri** dagokionez, etxebizitza bakoitzeko 1,62 iturmen-diar zeuden, etxebizitza nagusi bakoitzeko 2,68 eta ezohiko etxebizitza bakoitzeko 4,12. **Ziordian** 1,56, 2,25 eta 5,09 ziren. **Arruazu** azken aurrekoa zen. Etxebizitza bakoitzeko 1,43 arbazuar zeuden, etxebizitza nagusi bakoitzeko 2,30 eta ezohiko bakoitzeko 3,79 arbazuar. Zerrenda **Ergoienak** itxi zuen. Etxebizitza bakoitzeko 1,31 ergoendar zeuden, etxebizitza bakoitzeko 2,23 eta ezohiko etxebizitza bakoitzeko 3,19.

Alokairu poltsa

Nafarroako Gobernuak jakitun da etxebizitza huts ugari daudela. Baita alokairuko etxebizitza premia dagoela. Horregatik, Nasuvinsa enpresaren bidez Alokairu Poltsa martxan jarri zuen. Zerbitzu horrekin bat egiten duten etxejabeek Nasuvinsari alokatu nahi duen etxebizitza uzten dio eta enpresa publikoa arduratzen da hura alokatzeaz. Doako aholkularitza emateaz aparte, Nasuvinsak etxejabeari bermatzen dio hilabetero alokairuko errenta kobratuko duela, eta kontratua bukatzean etxebizitza baldintza egokian bueltatzea. Horri buruzko informazio guztia nasuvinsa.es/eu/node/301 webgunean dago.

Hauteskundeak, eta Bakaikuko Udala erantzun zain

Hauteslekua tokiz aldatzeko eskaerak hilabete-pasan ez du erantzunik jaso

BAKAIKU

Garilaren 23an Espainiako Gorteetako hauteskundeak izanen dira. Orain arteko hauteskundeetan Bakaikuko hauteslekua auzoa izan da, udaletxean dagoen gela. Aurreko deialdiekin alderatuta aldaketa handia dago: igande horretan Bakaiku festetan dagoela. Eta festetan auzoa erabili egiten da. Esaterako, han ardo banaketa egiten da.

Horregatik, udalak hauteslekua tokiz aldatzeko eskaera egin zuen. Hauteslekua festa gunearen erditik atera nahi luke, toki lasaiago batera eramateko. Kokaipen berria eskola zaharren eraikineko beheko solairua izanen litzateke. Han ia prest dagoen erabilera anitzeko gelara eraman nahi luke udalak hauteslekua. Horretarako, lehenik, Hauteskunde Batzordeari jakinarazi zion lekualdaketa eskaera. Hark erantzun zuen hura ez zela bere eskumena. Espainiako Gobernuaren Nafarroako Ordezkaritzak gauza bera erantzun zion udalari. Orain Hautesle Erroldaren Bulegoari aurkeztu diote eskaera. Duela hilabete-pasa egin zuen udalak lehen eskaera, eta, arrazoitua badago ere, zailtzak ditu eskaera onartuko dioten.

EGURDIAIN
sutarako egurra

608 57 03 57

kaxeta
LIBURUDENDA

@Kaxeta Liburu denida

www.kaxeta.net

628 542 519 | 948 460 477

xapatero
taberna

Terraza freskoa eta giro itzela dugu

948 460 162 · Etxarri Aranatz

Udako jaietan egizu gurekin topa!

Hijos de Goikoetxea

Tel. 948 467 317 · 996979279 · Gailuak 11 · ALTEASU

Pentsiodunen aldarrikapenean etena

Ikasturteko azken bilkura izan zen eta pankarta jaso ondoren, bazkaltzera elkartu ziren. Mugimenduko kideek irailaren 4an, astelehenarekin, 12:00etan, Altsasuko udaletxe parean berrekinen diote ikasturte berriari. Baina kideak ez dira geldi egonen

ALTSASU

Mugimenduak gutxieneko pentsioa 1.080 eurokoa izatea eskatzen du. Eta etorkizuneko pentsioak duinak izan daitezen gutxieneko soldata 1.200 eurokoa izatea. Mugimenduko kideek "premiatzkoak bezain beharrezkoak" diren eskaerak zerrendatu dituzte: "gutxieneko pentsioak miserableak izaten jarraitzen dute, ez dira 1.080 eurora ere iristen. Genero arrakala betikotu egiten da, eta alarguntza pentsioan %100era iristeko ez dago aurrerapen nabarmenik. Eta erretiro aurreratuaren koefiziente murriztaileek milaka pentsiodun zigortzen jarraitzen dute". Hilaren 23ko hauteskundeetara aurkeztzen diren alderdiei aldarrikapen horiek bere egiteko "konpromiso argia" eskatu diete.

Bestalde, Nafarroako 2024ko aurrekontuak ere begiz jota dituzte: "Nafarroako Gobernuak eta Parlamentuak lege eta ekonomia nahikoa eskumen dituzte aurre-



Itzalpetik aldarrikapenak zabaldu zituzten pentsiodunek.

kontuetan partida zehatz bat sortu eta gutxieneko pentsioen osagarri izateko". Pentsioak 1.080 eurora arte osatzeko eskatu diete, urtean 14 ordainketetan. Helburu hori lortzeko sindikatu eta gizarte eragileekin harremane-

tan daude Nafarroako mugimenduko kideak, ekimen sozial, plural eta zabala martxan jarri nahi dute. Bestetik, Euskal Herriko mugimendua Europako herrietako pentsiodunen lehen topaketa antolatzen ari da.

Egin egunkaria eta irratia itxi zituztela 25 urte pasa dira

Langileak kalean utzi eta makina bat herritar erreferentziazko hedabiderik gabe utzi zituen

SAKANA

Baltasar Garzon Real epaileak aginduta, 1998ko garilaren 15ean, Egin egunkaria eta Egin irratia itxi zituzten 150 guardia civilek. Epaileak haiek argitaratzen zituena enpresari ETAK gidatutako erakunde sare baten parte izatea leporatu zien. Nahiz eta 11 urte geroago, 2009an, itxiera bidezkoa ez zela esan Espainiako Auzitegi Gorenak. Baina enpresako hainbat arduradun, tartean zuzendaria eta zuzendari ordea, kartzelara zigortuak izan ziren. Eginen itxiera "Dena da ETA"

printzipioaren lehen pausoa izan zen. Epaia iritsi bitarteko 11 urteetan, langileak lantoki izandakora sartu ezin zirenez, eta epaitetik arduradunek egunkari eta irratia ondasunak behar bezala zaindu ez zituztenez, hautsi eta alferrik galdu ziren.

Egunkaria itxi eta hurrengo egunean kalean izan zen behin-behineko egunkari bat: Euskadi Información. Haren ibilbidea 1999ko ilbeltzaren 29an bukatu zen, hurrengo egunean Gara egunkariaren aurreneko zenbakia kaleratu zelako. Egun-

kari horrek Eginen gizarte segurantzarekin zuen zorreratik 3 milioitik gora euro ordaindu behar izan zituen, Garzon epailearen iritziz, "enpresen arteko ondorengotza ideologikoa" izateagatik.

Egunkaria itxi zutenean Sakana lau berriemaile zituen egunkariak: Txiki Iriarte Vitoria Irurtzunen, Maider Betelu Ganboa Lakuntzan, Amaia Mundiñano Larraza Etxarri Aranatzan eta Maite Alzelai Iriarte Altsasun. Horretaz aparte, Silver Arregi kazetari lakuntzarra egunkariaren Nafarroako ekonomia saileko arduraduna zen. Itxieraren aurrean, sakandarrek berehala erantzun zuten kalean protesta eginez, eta egunkari ezkertiar eta abertzale berri bat sortzeko diru bilketan buru belarri aritu ziren.

FESTAK

ITURMENDI KARMENGO FESTAK

UZTAILAK 14 Ostirala

XIMONA GAZTETXEAREN EGUNA

18:00 Txupinazoa.

Nesken pala partiduak.

20:00 Auzatea herriko trikitilariekin, plazan.

20:15 Japoniar bonbak.

22:00 Herri afaria.

Gaztetxeak antolatuta.

00:00 Kontzertuak: Muga Zero eta Deserrite taldeak.

UZTAILAK 15 Larunbata

KARMEN BEZPERA EGUNA

11:00 Txirrindularitza lasterketa.

Burunda TTK antolatuta.

12:00-14:00 Oinez jolasak.

Nafarroa Oinezek antolatuta.

12:30 Kontzertua: Ane Martija

kantautorea.

13:00 Auzatea, plazan.

17:30 Pilota partiduak, frontoian.

20:00 Auzatea, plazan.

21:45 Zezensuzkoa.

22:00 Herri afaria.

Aitzkozar Elkarteak antolatuta.

20:00-22:00 / 00:00-03:00 Fan & Go

taldearen musika emanaldia.

01:00-03:00 Ruleta 2x1.

Ximona gaztetxeak antolatuta.

UZTAILAK 16 Igandean

KARMEN ETA HAURREN EGUNA

10:30 Karmen Ama Birjinaren

omenezko meza.

11:00 Haurrendako jokoak eta

puzgarriak, frontoian.

12:00 Auzatea, plazan. Aizkolari

eta harri jasotzaile erakustaldia.

17:30 Haurrendako jokoak eta

puzgarriak, frontoian.

18:00 AHTaren aurkako hitzaldia.

Gaztetxeak antolatuta.

19:15 Japoniar bonbak.

20:00 Auzatea, plazan.

20:00 Kontzertua: Los Tenampas y

el Mariachi taldea.

22:00 Zezensuzkoa.

00:00 Karaokea, gaztetxeak

antolatuta.

00:30-03:30 DJ Jotatxo.

01:00 DJ Sorpresa.

Gaztetxeak antolatuta.

01:30 Perejil dastaketa.

Gaztetxeak antolatuta.

UZTAILAK 17 astelehena

JUBILATUEN EGUNA

11:00 Kalejira, herriko

txistulariekin.

12:00 Herriko jubilatuen omenezko

meza.

13:00 Iturmendiko zortzikoaren dantzaldia.

13:15 Auzatea herriko dantzariek girotuta, plazan.

14:30 Kalderete txapelketa.

Oharra: Kuadrilla bakoitzak bere kamiseta jantzi.

16:30 Ur txirrista puzgarria.

17:30 Kalejira, Eztanda txarangarekin. Mozorro eguna eta

zurrapapote kalean.

Gaztetxeak antolatuta.

20:00 Auzatea, plazan.

22:00 Zezensuzkoa.

20:00-22:00 / 00:00-03:00 Sukar

taldearen musika emanaldia.

01:00 80ko hamarkadako musika,

gaztetxeak antolatuta, gaztetxean.

UZTAILAK 18 Asteartea

SANTA MARINA EGUNA

10:00 Santa Marina erromeria

iragartzen duen suziria.

12:00 Meza, Santa Marina basilizan.

12:45 Ardo tazikak herriko

trikitilariak girotuta.

14:00 Bakoitza bere lekuan

bazkaltzera.

18:00 Dantzaldia herriko

trikitilariekin, Santa Marina plazan.

19:30 Auzatea trikitilariak girotuta,

San Pedron.

20:00 Haur festa DJ Oihan

Vegarekin. Karro poteoa.

Gaztetxeak antolatuta.

22:00 Herri afaria: Ajoarriero.

00:00 Su artifizialak eta jai

bukaerako traka.

00:00-02:30 DJ Oihan Vega.

ALTSASU

ERKUDENGO AMA BIRJINAREN EGUNA

UZTAILAK 16 Igandea

09:00 Altsasuko Mendigoizaleak

taldeak Altsasu - Murgil - Zezeaga

- Ulaiar - Erkudengo ermita zazpi

km-ko ibilbidea eginen dute,

taldeko egoitzatik.

09:30 Erromeria, Altsasuko elizatik

Erkudengo ermitara.

11:00 Meza.

Ondoren, hamaiketakoak eta

udalak ardoa, gazta eta ura

banatuko ditu.

IRURTZUN

UZTAILAK 19 Asteazkena

12:00 Haurrendako jokoak.

Barazkiguneak antolatuta.

13:00 Barazkigunearen irekiera

trikitilariekin.

Barazkiguneak antolatuta.

17:00 2023ko Irurtzungo

festetako kartel lehiaketaren

erakusketa, udalbatza

aretoan.



ARTXIBOA

IRURTZUN Asteazkenean, kalejira egingen dute Irurtzugo kaleetan.

17:30 2022. urtean jaiotako haurrei zapiak eta Erraldioen eta Buruhandien konpartsaren ipuin banatzea.
18:00 Festak iragartzeko txupinazoa.
Erraldoi eta buruhandien konpartsaren, gaiteroen, Orritz dantza taldearen eta EZK txarangaren kalejirak.
20:00 Orritz dantza taldearen emanaldia.
20:45 EZK txarangarekin dantzaldia.

21:45 Jauziak.
22:00 Larrain dantza.
22:30 Zezensuzkoa: kultur etxean hasi eta Gernika parkean amaitu.
00:00 Trikidantz taldearen dantzaldia.

UZTAILAK 20 Osteguna

10:00 Dianak.
11:00-12:30 Haurrendako margo lehiaketa, plazan.
11:30 Helduendako joko eta jolas herrikoiak, Gernika plazan.

12:00-14:00 Helduendako parke handia.
13:00 Bermut musikala Duo Imperial taldearekin, Gernika plazan.
14:30 Herri bazkaria, Barazkigunek antolatuta, Atakondoako patioan.
17:00 Aurpegi margoketa Irurtzugo Pintura Tailerraren eskutik, Foru plazan.
17:00-19:00 Haurrendako parke handia.
17:30 Kalejira Barazki Gurdiarekin. Barazkigunek antolatuta.

18:30 Herri kirolak, Gernika plazan.
19:30 Haurrendako txokolate jana, Foru plazan.
19:30 Ginkana.
Barazkigunek antolatuta.
20:00 Puro Relajo taldearen kontzertua.
22:00 Larrain dantza.
22:30 Zezensuzkoa, kultur etxean hasi eta Gernika plazan amaitu.
23:00 Kontzertuak: S.A.L.V, Txartoak eta lagunak eta DJ Atenenas taldeak.
Ondoren, XI. Txapel jaurtiketa lehiaketa.
Barazkigunek antolatuta.
00:30 Gabenara orkestrarekin dantzaldia.

UZTAILAK 21 Ostirala

10:00 Dianak.
11:30 Erraldoi eta buruhandien konpartsa.
14:00 Kalderete lehiaketaren epaia. Izena ematea: 13:00ak arte arkupeetan.
14:30 Kalderete bazkaria.
17:00 Bazkalostea eta Burrumba Elektrotxarangarekin kalejira.
17:30 Dabitxi Zirkuaren adin guztietarako Zirku tailerra, Gernika plazan.
18:30 Erremonte jaialdi profesionala: Nafarroako Foru

Komunitateko XVIII. Txapelketaren kanporaketa.
19:00 Karaokea.
Barazkigunek antolatuta.
20:00 Xaiborrekin musika emanaldia.
22:00 Larrain dantza.
22:30 Zezensuzkoa, kultur etxean hasi eta Gernika plazan amaitu.
23:00 Kontzertuak: Baskbilitx, Katutaldie, Burutik eta Djungle taldeak.
Barazkigunek antolatuta.
00:30 Oihan Vega diskofesta.

BAKAIKU

SANTIAGO FESTAK

UZTAILAK 21 Ostirala

14:30 Denak etxera bazkaria. Bazkalostea, Amaiur eta Haritzekin. Herri mugimenduak antolatuta.
19:00 Txupinazoa eta zortzikoa.
19:30 Dispersioaren amaiera ospatzeko topa.
Herri mugimenduak antolatuta.
20:00-22:00 Txorongo Txaranga.
00:00 Dj Kaiko eta Dj Zigich Bakaikuko Gazte Asanbladaren txoznan.
Herri mugimenduak antolatuta.
00:30-04:00 Lehian taldearen emanaldia.



KOLABORAZIOA

Lexia konposatuak Sakanan (I)

JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON

Honako izenburu ponpoxo honekin, Sakanan euskal hitzunik baliatzen edota baliatu dituzten hitz soila bera baino zerbait gehiago diren lexikoaren arloko burutzeak izanen ditudala kontuan esan nahi dut. Guztiak (lokuzio, esapide edo esamoldeak, aditz perifrasiak), orduan, hitz bakar batez baino gehiagoz izanen dira osatuak.

Aditzera bota (Burunda) Zeharka jakitera eman, aditzera eman. Argi eta garbi izan gabe ere, zerbait adierazi. *Ez ginduen erabat argi esan, beya aditzera bota ginduen ez gindala afaltzea etorriko* (Urdiain) (Ez genuen erabat argi esan, baina aditzera bota genuen ez ginela afaltzea etorriko). "Dar a entender".

Aditzera eman (Aranatz, Arakil) Ez da kasu honetan ohikoagoa den 'jakinarazi, azaldu, jendaurrean zerbait agertu', neurritz kanpoko moduan, oso nabarmen, ibiltzearen zentzuan baizik. Mundu guztia konturatzeke moduan ari izan, ahoz zein ekintzaz. Lehen osagaiak zer galderari erantzuten dio, beraz izena dugu. *Beti aitzera ematen; ezin normal jantzi ta*

ezin ixilik yon. (Beti aditzera ematen; ezin normal jantzi eta ezin isilik egon). "Llamar la atención, dar que hablar, postureo". Lizarragan pluralean lehen osagaia, *aaitzerak*, aurrekoaren zentzuarekin, "sugerir".

Aditzera(k) eduki (Ergoiena) Aditzea izan, entzutez jakin. *Aaitzera dakat falsue dala, aaitzerak battut falsue dala.* (Aditzera daukat faltsoa dela, aditzerak baditut faltsoa dela) "Haber oído que, tener conocimiento de, tener noticias de".

Aditzera onekoa/tzarrekua izan (Sakana) Ospe ona edo txarra izan. *Ni, baezpa de, ez nitzekek asko fiyetuko orreki, aitzera txarrekue dek eta!* (Ni, badaezpada ere, ez nintzatekek asko fidatuko horrekin, aditzera txarrekoa duk eta!) "Tener buena o mala fama/reputación".

Aditzeraz jakin/ezagutu (Sakana) Nonbait aditu duelako jakin. Aditzea izan. Lehen esaldia Etxarri Aranazkoa eta Lizarragakoa bigarrena. *Esaten ai zariena, aitzeras beño ez tikiyet.* (Esaten ari zaretena, aditzeraz baino ez zakiat). *Aaitzeras besteek ez*



tot ezaautzen (Aditzeraz besterik ez dut ezagutzen). "Saber de oídas".

Aho leuna eduki (Sakana) Hitz goxoak baino esaten ez dituenari egokitzen zaio, losintxaria denari. Pertsonaren fidagarritasunarekin lotzen da, 'aho leuna' duena ez baita batere fidatzekeoa. Bada esamolde honekin lotura estua duen esaera zaharra ere Etxarri Aranatzan. Bertan izena aldatu da (aho > hitz) eta aditza (eduki) elipsian dago esaera zaharretan ohikoa den moduan: *Itzek launek eta putzek miñek!* (Hitzak leunak eta putzak minak!) *Gauz oniako ago launegiye zikon orrek. Ni bintzet ez nitzecken fiyetuko berakin.* (Gauza onerako aho leunegia zeukan horrek. Ni behintzat, ez nintzatekeen fidatuko berarekin). "Pelota, lameculos".

Aho onetik jakin (Sakana) Informazio iturri ona eta ziurra erabili izana adierazten du esamolde honek. Zalantzarik gabeko informazioa jaso. Guk geuk zuzenean zerbait jakin edo ikusi izan bagenu bezala. *Ez nengoban bertan istripube gertatu zanién, beye ago oneti jakindu yet nola izendu zan.* (Ez nengoan bertan istripua gertatu zenean, baina aho onetik jakin diat nola izan zen). "De buena tinta".

Aho txikiarekin / handiarekin esan (Sakana) Ziurtasun maila adierazten dute esamolde hauek. Lehenak ia batere ziurtasunik ez dela eta, bigarrenak, aldiz, ziurtasun osoa, erabat konbentziturik. *Esan, esan dik*

etzi guuki mendie fanen dala, beye ago txikiyaki esan dik. Gios, gutxi fiye! (Esan, esan dik etzi gurekin mendira joanen dela, baina aho txikiarekin esan dik. Geroz, gutxi fida!). *Nik ez nitek bee kontra jokatuko, ago aundiyaiki esan zieguk ta onttuek ekarko ttubela.* (Nik ez nitek bere kontra jokatuko, aho handiarekin esan ziguk eta onddoak ekarriko dituela). "Decir algo con/sin convencimiento".

Aho zuloa begira egon/jarri (Aranatz, Arakil) Sakana erdialdean, norbaitenganako mirespena adierazten du. Norbait hitz egiten egonen balitz bezala eta besteok hari begira, txunditurik esaten duenagatik edota, besterik gabe, erabat erakartzen gaituelako. *Itz eitten asten danien, mundu guzie ago txulua beire yoten zikiyok.* (Hitz egiten hasten denean, mundu guztia aho zuloa begira egoten zaiok). "Estar embelesado".

Ahoko zuloan utzi, (Esku) Eskura jarri (Sakana) Kiroletan erabiltzen dira gehienbat, pilotan batez ere. Tantoa, gola edo beste egin beharreko zerbait oso era errazean utzi edo eduki. Oso erraz jarri zerbait. Oso zabaldua dago. Euskaltzaindiaren Hiztegian eskura etorri: "ad. Norbaiti zerbait eskueran gertatu". *Erraz eitten zittuk tantuek Irujok, pillota agoko zuluén uzten zibiek geyeneta ta.* (Erraz egiten ditik tantoak Irujok, pilota ahoko zuloan uzten ziotek eta). *Pillota guziek eskue jarri doozkiyok! Nola nei*

dek ola iraztie? (Pilota guztiak eskura jarri dizkiok! Nola nahi duk horrela irabaztea?). *Esku-eskue izendu ttuk ik beti bizitzeko bier dien guziek!* (Esku-eskura izan dituk hik beti bizitzeko behar diren guztiak!) "Dejar a huevo, en bandeja".

Ahotik hortzera, Ahotik ahora (Aranatz, Arakil) Hitzetik hortzera. Erantzuna bat-batean, pentsatzeko betarik izan gabe, ematen dela adierazten du. Normalean 'bota' aditzarekin osatzen da, baina 'esan' edo 'erantzun' aditzak ere erabiltzen dira. Lehen esaldia Aranatz-Arakilgoa dugu eta bigarrena Satrustegi euskaltzain arbazuarra zenaren idatzi batetik hartu zuen Andres Iñigok. *Ez zioiban iye betaik eman akatzeko esaldiye. Agoti ortzia yantzun zizkiyoban nei zittubenak esaten.* (Ez zioan ia betarik eman akabatzeko esaldia. Ahotik hortzera erantzun zizkioan nahi zituenak esaten). *Herritan iritzi batera heltzea zenbat gostatzen den badakigu. Hauxe da, izan ere, herri txikitako problema haundi bat. Agotik hortzera ez dira elkarrez fiatzen. Ahotik ahora ere erabiltzen da aipatu eremuetan. Euskaltzaindiaren Hiztegian jasota dago, baina "ahoz aho" esanahiarekin: Eta gurearen esanahiarekin berarekin Mezkitzen: "...: Zer konprenditzen dezu, zer erranai du nazionalista? Eta agotik agora erran zion: 'Oño, amar al nazion'..." (Zer ulertzen duzu, zer erran nahi du nazionalista? Eta ahotik ahora esan zion: 'Joño, amar a l(a) nación'...). "De sopetón, sin pensarlo".*

DUELA 25 URTE...



Euskara denon esku

Sakanako Mankomunitateak sustatu zuen Euskara denon esku hitzarmena, eta harekin bat egin zuten 119 taldek. Euskararen erabilerarekin kezka zeukan ibarreko erakundeak, eta hitzarmen horien bidez hizkuntzaren erabilerari sustatzea zen hitzarmen horren helburua. Elkarrearen eta bere konpromisoaren arabera, aukeran zeuden hiru konpromisoetako bat sina zezakeen. Ageriko elementuetan euskara gutxienez gaztelaniaren mailan jarriko zuten 47k. Beste 44 taldek bost puntu bere egin zituzten eta, azkenik, 28k hiru punturekin konpromisoa hartu zuten.



Mikel Zufiaurre, Espainiako Txapelketan. UTZITAKOIA

Lauhazka bizian, garaipenera

HIPIKA Mikel Zufiaurre altsasuar amazonak urrezko domina eskuratu du Espainiako TREC Txapelketan eta brontzekoa taldekako sailkapenean

Iñaki Rubio Mendoza ALTSASU

Senideekin paseo bat ematera joan zen behin, eta geroztik ez da zaldiengandik aldentu. Mikel Zufiaurre altsasuarra gaztea da. 16 urte beteko ditu aurten, baina eskarmentu handiko zaldizko batena dirudi haren palmaresak. Azken garaipena Espainiako TREC (LZIT Lehiaketarako Zaldi Ibilbideen Teknikak, euskaraz) Txapelketan eskuratu du, Tordesillasen.

"Maila altua zen oso, eta oso pozik nago egindakoarekin". Izan ere, urrea lortu zuen junior kategorian. Mairulegorreta zaldia- ren gainean 311 puntu eskuratu zituen, ondoko zaldizko Ian Herediari zortzi puntuko alde aterata.

Bakarkako erakustaldiez gain, taldeka ere lehiatu zen altsasuarra, eta emaitza onak lortu zituen Nafarroako delegazioarekin. Brontzea eskuratu zuten Izar bateko Junior kategorian: Uxue Rodriguez (Leonidas Polvorillo), Nahia Zubiri (Helios de Lagarde), Aniana Romera (Fire Dancer), Paula Molano (Triunfo de Janas) eta Mikel Zufiaurre aritu ziren. Hala, bi domina lortu zituen altsasuarrek txapelketa horretan.

Diziplina konbinatua

90. hamarkadan sortu zen TREC edo LZIT diziplina, Frantzia, eta geroz eta jarraitzaile gehiago ditu. Halaber, zaldizko modalitateen artean aldaera osoenetarikoa da. Amazonaren eta zaldiaren arteko harremanak baldintzatzen du lehiaketa, eta bi horien arteko sinergia ezinbestekoa da lehiaketa emankor bat erdiesteko. Zaldizkoaren eta animalia-aren orientatzeko gaitasuna baloratzen da, baita ingurura moldatzeko gaitasuna ere. Horretarako, hiru proba dira gainditu beharrekoak.

Lehenengoa orientazioa da. Mapa batean marraztutako kontrol puntuetara iritsi behar du zaldizkoak, iparrorratz baten laguntzaz. Bigarrena aire maitza proba da. Bertan, 150 metroko pasaleku bat igaro behar da, joatean azkar, eta itzultzean lauhazka baina mantso. Hirugarrena, PTV, proba konbinatua da, eta saltoak, atek edo eskailerak bezalako oztupoak saihesten dituzte. Ondoren, zirkulu batean sartzen du amazonak zaldia; gainetik jaitsi eta zirkulutik ateratzen da, animalia baturan geldirik mantenduz.

Txapelketaz txapelketa

Eta garaipenez garaipen. Izan ere, brontzekoa lortu zuen iaz Espainiako Txapelketan, eta, ondorioz, iragan abuztuan Frantzia egin zen Munduko TREC Txapelketara joateko sailkatu zen. "Bizipen polita izan zen, batez ere munduko zaldizko onenak aurrez aurre izan nituelako". Halaber, Europako Txapelketa irailean egingen da, baina selekzioak ez du oraindik argitu nor ariko den. Dena den, Zufiaurrek bertan aritu nahi duela esan du.

Munduko Txapelketan aritzeko, aldiz, hiru urte itxaron beharko ditu, lau urtean behin jokatzeko baita, Olinpiar Jokoetan bezala. Ordea, TREC a ez da diziplina olinpikoa, horretan aritzen direnek hala eskatu badute ere. "Uste dut lortuko dugula, baina ez Parisko Olinpiadetakarako", azaldu du.

Ordurako asko hobetzea espero du Mikel Zufiaurrek, bere helburua apurka-apurka kategoriak igotzea baita, onenen artean izan arte. Bitartean, esfortzua eta konstantzia izanen ditu lagun, familiarreko paseo- txoekin batera.

Sakandarren uzta ona Espainiako Txapelketetan

TXIRRINDULARITZA Adrian Martinez Top 20an sailkatu zen juniorren erlojupekoan

SAKANA

Aurreko guaixean ekainaren 29tik uztailaren 1era arte Cartagenan jokaturako eskolarreko Espainiako Txirrindularitza Txapelketaz aritu ginen, baina hainbat txirrindulari sakandarren berri ematea falta izan zitzaigun.

Lehenik eta behin, junior mailako gizonetako erlojupekoan Euskadiko selekzioko Markel Beloki izan zen txapelduna (26:00). Nafarroako selekzioarekin aritu zen Adrian Martinez lakuntzar- rakk lan ederra egin zuen eta 17. sailkatu zen (28:07); Iker Gomez altsasuarra 32. sailkatu zen (29:15). Junior mailako errepideko lasterketa Alvaro Garcia murtziar- rakk irabazi zuen (3:37:55) eta Adrian Martinez 17. sailkatu zen (3:41:45).

Berastegi eta Juanez

Emakumezkoen kadeteen mailan Nafarroako selekzioko Paula Ostiz izan zen protagonista nagusia, berak irabazi baitzuen bai erlojupekoa (17:48) eta baita errepideko lineako lasterketa ere (1:47:45), Taldekako erlojupekoan Nafarroako selekzioa laugarren izan zen, tartean Ane Beltran de

Heredia altsasuarra eta aurreko astean aipatu ez genuen Ane Berastegi arbizuarrak egindako lan bikainari esker. Errepideko lasterketan Beltran de Heredia 21. sailkatu zen (1:51:51) eta Berastegi 26. (1:53:45). Gizonen kadeteen mailan Luca Martinez lakuntzarra hamargarren izan zen erlojupekoan (17:18), eta Nafarroa laugarren sailkatu zen taldekako erlojupekoan, tartean Ekain Imaz altsasuarra egindako lanari esker. Errepidean, Ekain Imaz 14. sailkatu zen (1:32:58) eta Luca Martinez 49 (1:34:40).

Azkenik, haurren mailako emakumezkoetan Uxue Juanezek egindako lanaren berri aipatzea falta izan zitzaigun. Errepideko lasterketan altsasuarra 29. sailkatu zen (28:33), eta gymkanan hamabosgarren (4:03:38). Nafarroako selekzioko bere taldekide Eider Mazkianan (ginkanan 32. eta errepidean 46.) eta Lucia Zornoza (ginkanan 35. eta errepidean 44.) ere txukun ibili ziren.

Gizonetakoetan Unax Etxeberria etxarriarra 48. sailkatu zen errepideko lasterketan eta 24. gymkanan. Ekai Erdozia etxarriarra 35. postua egin zuen ginkanan.



EGUN ON SAKANA
Goizero 10:00-12:00

Errepikapena 14:00-16:00
web bidez: www.guaixe.eus

107.3 FM
beleixe

"Etorkizunean entrenatzera itzultzea espero dut"

GARAZI MISIEGO ARDOIKO ENTRENATZAILE OHIA

SASKIBALOIA Argi du berriz ere ez duela jokatu. Oraingo gustora dago, semeaz gozaten, baina noizbait entrenatzera bueltatzea gustatuko litzaiok, etorkizunean bada ere

Iñaki Rubio Mendoza ALTSASU

Garazi Misiegok hezkuntza du ogibide, baina saskibaloia da bere pasioa. Txiki-txikitatik hasi zen kirol horretan, Altsasuko CBASK taldean, eta geroztik ez da geldirik egon, guztiz behintzat. 2018an jokatzeari utzi zion, bere betiko Ardoi taldea saskibaloiren gorenera gidatu ostean. Entrenatzaile gisa jarraitu zuen, baina ez luzaroan; semea izan zuen orain bizpahiru urte, eta hori ere utzi egin zuen. Ez hala-beharrez, semeaz gozatzeko denbora gehiago nahi zuelako baizik. Ordea, "Kit kat" batean dagoela esan du, ez du puntu eta bereiz egin. Jokatzera ez baina entrenatzera noizbait itzuliko dela baieztatu du.

Altsasun eman zenituen lehen boitek.

13 urtera arte Altsasuko CBASK taldean ibili nintzen, junior taldean. Ondoren, Zizurretik deitu zidaten, Ardoi klubera joan nahi nuen ala ez, eta bertan eman nion jarraipena nire ibilbideari. Talde horretan aritu naiz.

Herrietako talde txikiak izan ohi dira harrobi hoberenak.

Hala da. Nafarroa txikia da, eta klub handiek inguruan dituzten talde txikiei erreparatzen diete, jokalarionen bila.

Nafarroako selekzioa entrenatzera iritsi zinen.

Txikiekin hasi nintzen, mini mailakoekin, bigarren entrenatzaile gisa. Tarte bat hartu nuen, eta emakumezkoen infantil mailan entrenatzeko eskatu zidaten ondoren. Horiek bi urtez entrenatu ostean, lehen entrenatzailea izan nintzen, beste bi urtez.

Ardoi taldearekin garaipen handiak eskuratu dituzu.

Kapitaina izan nintzen, eta Nafarroako talde hobereana izatera iritsi ginen. Gainera, emakumeen bigarren ligara igotzea lortu genuen. Historikoa izan zen.



Garazi Misiego, arbela eskuan duela. UTZITAKOIA

Duela bost urte jokatzeari utzi zion, baina entrenatzaile izateari ere. Zer dela eta?

Bigarren mailara igo ginenean, inflexio puntu bat izan zen niretzat. Erroka handi bat lortu genuen, eta erretiroa hartzeko ordua zela ikusi nuen. Halaber, belauna bi aldiz hautsi nuen, eta lesioaren eragina astuna zen. Entrenatzaile gisa jarraituko nuela erabaki nuen. Hiru urtez aritu nintzen. Semea izan nuen orduan, eta entrenatzailea izateari ere utzi egin nion.

Entrenatzaile gisa aritzeko konpromiso handia behar da, eta ordu asko sartu. Entrenatzeaz gain, hamaika gauza egin behar izaten nituen etxera iristean: beste taldeen partidak ikusi, analisiak egin, txostenak, bideoak... argi nuen nire semea izanen zela lehentasuna, bera-

"BIGARREN MAILARA IGO GINENEAN, NIRE HELBURU ETA ERRONKAK BETE EGIN ZIREN"

rekin denbora pasatu nahi nuela, hazten ikusi. Orduetik, stand by moduko egoera batean nago. Geroz eta agerikoagoa den arazoa da kontziliazioarena, batez ere emakumeen artean. Zein izanen litzake konponbidea?

Bai. Azkenean, nire lanpostuari bezainbeste ordu eskaintzen nizkion saskibaloitari. Balantzan jarri behar da hori. Izan ere, entrenatzaileek ez dute kobratzen; gizonetzkoen lehen mailan aritzen direnek soilik ateratzen dute bizimodua. Talde xumeek, esaterako, ezin dute entrenatzailea ordaindu, horrek kuoten igoera ekarriko lukeelako, eta, ondorioz, jendeak ez luke izena emanen talde horietan. Sorgin-gurpila da.

Ez dakit konpondu litekeen ere. Hutsunea dago hor. Dena den, semearekin egon nahi nuelako erabaki nuen hori, eta ez arrazoi ekonomikoengatik. Halere, ez duzu saskibaloia mundua guztiz utzi. Play Your Best teknifikazio campusean aritu zara berriki. Nolako izan da esperientzia? Noizean behin halako gauzatxoak egiten ditut; saskibaloia utzi

izanaren arantza kentzen dut horrela. Ekainaren 26tik 30era egin genuen. Maria Asurmendi jokalaria antolatzen du, eta aurtengoa bigarren edizioa izan da. Gainerako campusen bestelakoa da: entrenamendu teknikoak prestatzen dira, jokalaria bakoitzak duen mailari erreparatuta, adinari so egin behar. Mugimenduak nola hobetu, izan beharreko jarrera azaldu, akatsak zuzendu... Jokalari profesionalak ere etorri dira, aholkuak eta abar ematera. Hamaiketako ere ez da edonolako; dieta osasuntsuaren alde egiten du campusak.

Pozik al zaude Ardoik egin duen denboraldiarekin?

Denboraldi ona egin dute, eta datorrenean ere ondo ariko direla uste dut. Oso jokalaria onak ekarri dituzte, hala nola, Maria Asurmendi. Eskarmentu handia dauka, eta talde handien aurka lehiatu da, Araskinetik baitator. Jokalari oso interesgarria da. Batea da bera, eta ikusiko dugu nola plazaratzen duen esperientzia hori.

Pentsatu duzu inoiz kantxara itzultzea?

Jokalari gisa ez, kontent nago egin dudarekin. Entrenatzaile moduan baietz espero dut. Hainbat klubengandik jaso dut bizpahiru urte hauetan, baina oraingo semea da lehentasuna. Ikusiko dugu aurrerago.

Zein da zure filosofia entrenatzaile gisa?

Honakoa esan diet beti taldekideei: azkar joan nahi baduzu, egizu bakarrik. Urrun iritsi nahi baduzu, ordea, egizu taldearekin batera. Talde batean kide guztiak dira beharrezkoak, 5 minutuz jokatzeko dutenak edo 30 minutuz aritzen direnak. Bakoitzak jakin behar du bere rola zein den. Helburua ere garbi izan behar da; behin hori barnerraturik, taldea zurekin egon behar da, hiltzeraino. Talde txikietan, noski, disfrutatu eta kirolari katigatu behar zaizkio gazteak. 10 urteko haurra jolastu gabe uztea, esaterako, astakeria galanta da, egiten duen kirol hori utziko baitu.

"ENTRENATZAILE GISA ARITZEKO KONPROMISO HANDIA BEHAR DA, ETA ORDU ASKO SARTU"

Irurtzun kluba, bitan txapelkun Europako klubaren artean

Europako Klubaren arteko Pilota Txapelketa jokatu zen Iscarren iragan ekainaren 31tik uztailaren 2ra, eta Irurtzun Pilota Kluba irabazi zuen banakako eta binakako esku pilotan. Ipar Euskal Herriko, Frantziako, Kataluniako eta Espainiako taldeak lehiatu ziren, eta zestapunta, paleta motza eta larruzko modalitateak ere jokatu zituzten.

Lehenengo egunean, jokatu ziren finalerdiak. Banakako esku pilotan, Irurtzunen Iosu Olaetxea unanurrak Saint Palais Amikuzeko Mendiburu garaitu zuen, eta, aldi berean, Urbion klubeko soriarekin Pays d'Orthe. Binakakoan, Irurtzunen Aingeru de la Fuente - Iosu Bergera eta Obere-na klubeko iruindarrak klasifikatu ziren finalerako, Pays d'Orthe eta Noizbait-Hazparren garaitu ostean, hurrenez hurren. Biharamunean jokatu zituzten finalak. Banakako esku pilotan Iosu Olaetxea unanurrak irabazi zuen Urbioneko Cabrerizoren aurka, eta, binakakoan, Bergerarekin batera irabazi zuen Olaetxeak Europako Txapela.



Ezkurdia, Iruñeko torneoan. UNAI BEROIZ.

Ezkurdia-Zabaleta, sanferminetako finalerako

Ezkurdia-Zabaleta dupla 22-19 lehiakor batekin inposatu zitzaion Jaka-Aranguren binomioari ekainaren 12ko partidari, eta, hortaz, lehenengoek ez dute finalerako jokatu.

Sakandarren garaipenak Al-tuna III-ri eta Rezustari eman zien finalerako pase zuzena, 22-9koa behar baitzuten torneoan aurrera segitzeko.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 14

ZIORDIA Kontzertua.

Eztanda Txarangaren emanaldia.
20:00etan, *Etxaleku tabernan*.

IRURTZUN Opera.

Turandot operaren zuzeneko emisioa
Madrilgo Errege Antzokitik.
20:45ean, *kultur etxean*.

LARUNBATA 15

OLAZTI Bakarriketa.

Barandi tabernaren VIII. urteurrena:
Gorka Aguinagalde umoregilearen *El regreso de Patxi* bakarriketa.
20:00etan, *Barandi tabernan*.

IGANDEA 16

HIRIBERRI ARAKIL Ibilbide interpretatiboa.

Arakil Ezagutz ibilbide interpretatiboa Sarabe Arakama etaLuis Beraza teknikariek: Satrustegiko errota, Egiarretako Altzu urmaela eta Hiriberriko harizti eta gaztainondoak. Ibilbide zirkularra, bi ordu eta erdi edo hiru ordukoa, azalpenekin.
10:00etan, *kontzeju etxean*.

IRAÑETA Elizkizuna.

San Gregorio erromeria herrian eginen dute.
11:00etan, *elizan*.

OLAZTI Urteurrena.

Barandi tabernaren VIII. urteurrena.
12:00 Gaztelu puzgarria.
13:00 *El Gran Ritxarson* musikariaren kontzertua.
14:30 Paellada.

ALTSASU Ekitaldi politikoa.

Nafarroako EHBilduren ekitaldia Bel Pozueta Espainiako Parlamenturako eta Koldo Leoz Garcandia Espainiako Senaturako hautagaiekin.
13:00etan, *Foru plazan*.

IRURTZUN Antzerkia.

Xabier Artiedaren *Everybody needs... Algara!* ikuskizunaren emanaldia.
20:00etan, *Pikuxarren*.

ASTEARTEA 18

UHARTE ARAKIL Ur festa goxoa.

Gozamenez programaren *Ur festa goxoa*. Gaueko bainua eta txokolatezko iturria. 12 urtetik 25 urte bitartekoendako.
20:00etatik 23:30era, *igerilekuetan*.

IRURTZUN Udako zinema.

Irati euskarazko filmaren emanaldia, bertsio originalean gaztelaniazko azpitoluekin.
22:00etan, *Foru plazan*.

OSTIRALA 21

ZIORDIA Kontzertua.

Chuchin Ibañez mariatxiaren kontzertua.
20:00etan, *Etxaleku tabernan*.IRURTZUN Ricardo Azkargorta artistaren *Bertatik Bertara* margolan erakusketa.Uztailaren 18ra arte. *Pikuxarren*.

BAZTERRETIK

IRATI PELLEJERO MARIN

Polo Ralph Lauren

1939ko urriaren 14an jaio zen Bronxen (New York), etorkin juduen familia batean. Ekonomia ikasi zuen City Collegen (Manhattan); baina graduatu eta gutxira, ikasketak utzi zituen. 1962an, soldadutza egin zuen.

1967an Beau Brummel Neckwear gorbata linean hasi zen lanean. 1974an, bere lanari esker, bere lehen eta hortik aurrera emakumeentzako linea bat merkaturatu zuen. Estatu Batuetako diseinatzaile ikonikoenetako bat bihurtuz, talde estatubatuarren uniforme olinpikoen diseinuaren arduraduna da; eta, gainera, Donald Trump presidentearen inaugurazio ekitaldian, Melania Trumpek eta Hillary Clintonek erabili zituzten jantziak sortu zituen.

Ez du bakarrik arropa sortu, perfumeak ere bai: Polo bere lehen lurrin maskulinoa eta Lauren emakumezkoentzat. Ralph

Lauren filmaren arrakastaren zati handi bat zinematik eta kiroletatik datozen inspirazioen konbinazio orekatuari zor zaio: Gary Cooper aktoreak *Kill or Die* (1952) filmean erabilitako arropa eta Fred Astairek *Daddy Bugs* (1955) filmean erabili zuen, beste hainbesteren artean.

Diseinatzaileak esan zuen bezala, "dena tradizioarekin hasi zen, baina ez zen inoiz horrekin geratu". Gaur egun, bere diseinuen estiloari eta sofistikazioari esker, bai eta gizonezkoentzako, emakumeentzako eta haurrentzako bildumei esker ere, Ralph Lauren marka daramaten produktuak lurrindegia, altzari eta dekorazio, jatetxe, kafetegi eta hoteletarako zabaltzen dira. Adibidez, Pineapple House dotorea sinatzen du, Round Hill Hotel and Villas-en, Montego Bayn Jamaikan.

MUSIKAZ BLAI

Leire MARTINEZ OTXOA

Abeslaria / GARES

Ezetz asmatu zeintzuk diren bere kantu kuttunak Piztu irratia!

Uztailak 14, ostirala, 10:30etik aurrera

Beleixe irratan

107.3 FM

beleixe

Er **vit** **i** aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

JAIOTZAK

- **Anas Tlaghi**, uztailaren 8an Altsasun
- **Anitz Zufiaurre Moreno**, uztailaren 7an Etxarri Aranatzan

EZKONTZAK

- **Aimar Rollan Gonzalez eta Cecilia Paola Lobato Foulques**, ekainaren 29an Urdiainen
- **Guadalupe Nuñez Celaya eta Jose Antonio Mayor San Martin**, ekainaren 23an Irurtzunen.

HERIOTZAK

- **Luis Viñas Vilches**, uztailaren 1ean Irurtzunen

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA.
AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70€
prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek %10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK

ALOKAGAI

Altsasun Coworking bulegoa autonomo eta urruneko langileentzat: Altsasun 4 edo 5 pertsonen artean partekatzeko bulegoa; Wifi, inprimagailua, berogailua, komuna eta officea ditugu. Aukera paregabea! Informazio gehiago 948 562 604 edo 603 417 554 telefonoetara deituz.

IKASTAROA

Altsasu mugitzen da adinduendako kirol eskaintza: Irailaren 25ean hasiko diren bi ikastaroen izena emateko epea uztailaren 10etik 19ra izango da. 70 urteko gorakoentzat bi eskaintza daude; bata, mojen gimnasion ariketa fisikoarena astelehen eta asteazkenetan, 10:00-11:15 edo 11:30-12:45 ordutegietan, bestea Zelandiko igerilekuan, astelehen eta ostiralean 12:30-13:30 ordutegian. Informazio gehiago eta izen emateak 948 012 012, 948 468 343 edo 948 467 662 telefonoetara deituz edo aurrez aurre Zelandi kiroldegian. Errentaren arabera ordaindu beharko da ikastaroen parte hartzeagatik, informazio gehiago www.altsasu.net web orrian.

OHARRAK

Etxarri Aranazko jaietan haurrei zapi banaketa: 2022. urtean jaio eta Etxarri Aranatzan errodaduta ez dauden haurrek jaietako larunbatean egin-

go den ekitaldian zapia jaso nahi badute udal-tereko bulegoan izena eman beharko dute eta zapiaren kostua ordaindu, 5 euro, uztailaren 21a baino lehen.

Etxarri Aranazko jaietan zezensuzkoa eta buruhandiak eramateko eskaintza: Zezensuzkoa eramateko adin nagusikoa izan behar da eta buruhandiak 12 urteko gorakoa. Interesa dutenek uztailaren 20a baino lehen udal-terean izena eman dezakete.

Etxarri Aranazko festetako jubilatuen bazkarirako txartelak: Etxarri Aranatzan errodaduta eta 65 urteko gorakoak dohai-nik joan daitezke bazkal-tzera, baina, derrigorrezkoa da txartela eskuratzera, horretarako udal-terean jaso behar da txartela uztailaren 19a baino lehen, 10:00etatik 14:00etarako ordutegian. Errodaduta ez daudenek 26,50 euroren truke har dezakete bazkarirako txartela. Bazkaria agorri-laren 2an, Aittun-amiñan egunean egingo da.

Arakil eguneko bazkarirako izen ematea zabalik: Uztailaren 25ean Arakil eguneko ekitaldia ltsasperrin egingo da, ondorengo ospakizunak eta bazkaria Izurdiagan izango dira. Bazkarirako txartelak udal-terean eros daitezke uztailaren 17ra arte, helduek 25 euro eta haurrek 11 euro ordaindu beharko dituzte.

Etxarri Aranatzeko ferietako azokan parte

hartzeko izen ematea zabalik: Lastailaren 1ean ospatuko den feriarean barruan azokan ekoizle edo artisau moduan produktuak saltzen egon nahi dutenek izena eman dezakete agorri-laren 18ra arte azoka@etxarriaranatz.eus helbidera idatziz, 948 460 004, 948 460 930 edo 606 239 008 telefonoetara deituz edo udalera gerturatzuz. Udal-teretik azaldu dute, bakarrik aukeratuak izan direnei jakinaraziko dietela parte hartuko dutela agorri-laren 23an. Aukeraketarako irizpideak: egindako lanaren kalitatea. Etxarri Aranazko edo Sakanako herritarra izatea, artisau ziurtagarria izatea, azokan bertan norberaren lanaren erakustaldia egitea.

Odol emateak Arbuzun: Uztailaren 18an Udal-terean, 17:00etatik 20:00etara.

Odol emateak Altsasun: Uztailaren 24ean, 26an, 27an 17:00etatik 21:00etara eta 28an 9:30tik 13:15era, Osasun etxean. Animatu.

Lakuntzako jaietan haurrei zapi banaketa: 2022an jaio eta Lakuntzan errodaduta ez dauden haurrek jaietan zapia jaso nahi badute udal-terean izena eman behar dute uztailaren 21a baino lehen.

Udako Sakanako Mintzokide taldeak: Etxarri Aranatzan astean behin, bazkalondoren Xapatero tabernan, Altsasun astean behin goizetan eta beste herrietan herriz herri (astero leku batean). Zatoz

gurekin dohai-nik dal izena emateko wasapa bidali 600 482 024 telefonora.

Aralar aingeruari haurrak aurkeztea: Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradiak Aralarko Aingeruari Haurren Aurkezpena antolatu du. Uztailaren 23an, meza nagusiaren bukaeran Haurren aurkezpena egingo da irudiarri musu emanez. Aldez aurretik izena ematen dutenek umeen izen-abi-zenak grafia ederrez idatzitako pergaminoa jasoko dute. Horretarako, santutegiako sakristian edo dendan eman behar da izena edo basanoa.josemari@gmail.com helbidera idatziz.

Emakumeen bilgunearen zabalpen zerrenda marbxan: Altsasuko Udaleko Emakumeen Bilguneak Whatsapp aplikazio-ko zabalpen-zerrenda bat sortuko du, Berdintasun Zerbitzutik antolatzen ditugun ekitaldi eta jardueren berri emateko. Zabalpen zerrendan parte hartu nahi baduzu, bidali iezaguzu Whatsapp-eko mezu bat zure izen-abi-zenekin eta zerrendan parte hartu nahi duzula adieraziz telefono honetara: 628 328 593.

Herri Urratsekin elkartasun uholdean diru ekarpenak egiteko: Herri Urratsera joatea ezinezkoa egin bazitzaizun eta sostengua erakusteko aukera hauek dituzte: www.herriurrats.eus web orrian sartuta eta materiala erosituz, Bizum bidez Dohaintzak egiteko atalera sartuz (herri urrats

aurkitu eta dirua bidaliz) edo honako kontu korronte hauetan dirua sartuta: ES87 3035 0059 8205 9073 1197, ES98 2095 5045 8710 6117 7332.

Euskara hutsezko Udalekuetara joango diren haur eta gazteendako dirulaguntzak: Udalekuak 5 egun eta 15 egun bitartean irau behar dute eta ekainaren 15etik irailaren 30era bitarte burutu behar dira. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian eskura dezakezue.

Euskalduntzen edo alfabetatzen ari direnendako dirulaguntzak: 2022ko uztailaren 1etik 2023ko abuztuaren 31ra arte egindako ikastaroen matrikulak lagunduko dira, kilometrajea ez da diruz lagunduko. Ikastaro estentsiboak, trinkoak, barnetegiak eta informatika bidezkoak, C2 mailakoak barne. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko uztailaren 31n amaitzen da. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian.

Errotulak euskaraz jartzeko dirulaguntzak: Establezimendu komertzialei, ostalaritzakoei eta elkarteei zuzendutako dirulaguntzak dira. Diruz lagunduko dira errotulak, toloak eta ibilgailu komertzialen errotulazioa. Euskara hutsean idatzita dagoen errotulua jartzen duenari %50 ordainduko zaio, gehienez 500 euro emanen zaizkio. Euskaraz eta erdaraz idatzita daudenei %25a, gehienez 250 euro. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko urriaren

31n amaitzen da. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian.

Adur rol jolasa euskaraz eta doakoa: Telegram bidez jolasten den rol joko bat jarri du marxan Eneko Azedok. "Adur - Azken erronka" Euskal Erdi Aro mitologikoan girotuta dago, Iruñetik hasi eta Euskal Herri guztiatik bidaiatzeko aukera ematen du, izaki mitologikoak aurkitu eta abenturak bizitzeko. Informazio gehiago <https://t.me/+A-NOUJSCts0M210>.

Arropa bilketa: Baduzu erabiltzen ez duzun arroparik, eta ez dakizu zer egin? Arakilgo udal-terean arkupean bilketa gune bat irekitzera goaz. Hilabete lehen azoka egunean, asteartean, 11:00etatik 13:00etara. Errotxapean dagoen Elkarrigun Laguntza Elkarteak duen egoitzara eramango dugu, bilketaren biharamunean. Itxipuru Taldea 620 254 230 eta Mank Anitzartean 648 070 710 antolatuta.


Konposta eskuragaita: Sakanako Mankomunitatearen Hondakin Zerbitzua jakinarazi du edonor har dezakeela konpost Arbizuko UtzubarEKOguneko konpost plantatik. Asteagunetan 08:00etatik 15:00etara joan daiteke. Nondik hartu jakiteko zerbitzuaren bulegotik pasa behar da. Zakuak eramate gomendatzen da. Konpost gurdikadak ere eraman daitezke.

iragarki@guaixe.eus


www.iragarkilaburrak.eus

EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 14




Larunbata, 15



Igandea, 16



Astelehena, 17



IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu - Irurtzun - Lekunberri - Betelu - Leitza

"Betidanik"

☎ 948 19 70 70

📍 @Grupolrache

📱 Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es



2022ko Urmugako Aizpearron, Aralarren, egindako kontzertua. UTZITAKOIA



Felipe Uriarte, Patxi Xabier Razkin eta Migel Zeberio, aurkezpenean. UTZITAKOIA

Mendiak eta musika elkartuz

Hemeretzi egunez Euskal Herria zeharkatzen duen mendilerroan zeharkaldia eginen dute eta, bitartean, toki "esanguratsuetan" kontzertuak antolatuko dituzte Urmuga ekimenaren barruan. Patxi Xabier Razkin lakuntzarra antolakuntzako kidea da

Erkuden Ruiz Barroso LAKUNTZA
Uztailaren 12an abiatu zen Angulo mendetik mendizale-tasuna eta musika uztartzen dituen Urmuga zeharkaldia. Hemeretzi egunetan Euskal Herria zeharkatzen duen mendilerroa zeharkatuko dute, Hiru Errege Mahaiara iristeko, eta tartean kontzertuak eginen dituzte. Ekimenaren antolakuntzan sakandar bat dago: Patxi Xabier Razkin Sagastibeltza lakuntzarra.

Migel Zeberio Et Incarnatus orkestaren zuzendaria eta Felipe Uriarte mendizaleari bururatu zitzaizen "erokeri" bat da Urmuga, Razkinek azaldu duen bezala. "Oso lagunak eta mendizale sutsuak dira. Mendi buelta batean horrelako proiektu bat egitea bururatu zitzaizen eta biek ezin dutenez ipurdia geldirik izan aurrera egin zuten". Mendiak eta musika uztartzen ditu ekimenak, "Euskal

Herriko kohesioa lortzeko" helburuarekin: "Hori da pixka bat beraien filosofia". Hortaz, Euskal Herriko muga natural zeharkatuz, muga "politikoak hautsi" nahi dituzte: "Euskal Herriko Urmuga, GR12a, Euskal Herria zeharkatzen duen mendilerroa zeharkatzean datza, eta bideko leku esanguratsu edo magikoetan kontzertuak egiten dira".

Logistika

"Kasualitatez sartu nintzen. Lakuntzako alkatea nintzenez karguarekin Aralar elkarterako presidentea izatearena doa. Orduan, kontzertuetako bat niretako esaguratsuen, politena eta potenteena dela Aizpearrokoa, Aralarren, antolatzen laguntzen egon nintzen aurreko bi edizioetan. Leku oso zaila eta berezia denez, logistikaren eta antolakuntzaren aldetik arazo pila bat

sortzen dira eta Migelek esan zidan bezala: su hiltzailea naiz". Aurreko antolakuntzan izandako esperientziaren ondoren logistika koordinatzaile izatea eskaini zioten; Uriartek zeharkaldian taldea gidatzen du, Zeberio arlo artistikoa zuzentzen du eta Razkinek kontzertuetako logistika eta "egunean bertan" sor daitezkeenak eramaten ditu.

Egoera normal batean kontzertu bat antolatzea zaila bada, mendi batean "ahal den bezala" antolatzen dela esan du Razkinek. "Hau auzolan erraldoi bat da. Leku batzuk errazak dira herri-

UZTAILAREN 20AN, AIZPEARRO ARALARKO "TOKI MAGIKOAN" IZANEN DA KONTZERTUA

ko plaza batean delako, baina beste leku batzuetan todoterrenoak, traktoreak eta abar behar dira. Aralarrekoan, esaterako, militarren moduko kamioi bat eramango dugu". Dena aurretik aurreikusita eta antolatuta izan arren, "egunean bertan ez dakizu iritsiko zaren" esan du lakuntzarrak: "Bustia baldin badago, agian ezin zara malda horietatik pasa...". Ekimenaren alde onena "jende pila batek" parte hartzen duela da: "Jende asko egoten da kargatzen, deskargatzen, bere autoa edo traktorea jartzen...".

Europa mailan dagoen "horrelako" proiektu bakarra da. "Alpeetan eta Pirinioetan kontzertuak egiten dira, baina zeharkaldi baten baitan ez, eta auzolanean egiten da". Proiektuaren "ederrena" ezagutzen den jendea eta lankidetzak dela esan du lakuntzarrak. Aldiz, txarrena instituzioen aldetik laguntza falta da: "Beti zaude olatuen kontra igeri. Ez dago diru laguntza handirik. Diru falta dago, eta hori da tristeena. Horrelako proiektu bat izatea Europa mailan bakarra, Euskal Herrian, eta ez izatea laguntzarik". Bestela, proiektuak ez dauka alde "txarrik".

Lanean egongo den arren "asko disfrutatzeko" tartea duela esan du lakuntzarrak: "Bazkaltzen, elkarlanean, egiten ditugu barreak...". Kontzertuetan bertan ere oso ongi pasatzen du, "maila handiko kontzertuak dira".

Zeharkaldia

Gaur Urmuga zeharkaldia Altubetik aterako da eta Barazar mendatera iritsiko da eta bihar, uztailak 15, Barazartik abiatuko da Urkiolara iristeko. Uztailaren 18tik aurrera Sakanatik gertu ibiliko da: Urbiatik aterako da eta Otzaurteko mendatera iritsiko da, eta uztailaren 19an Altzania basoetan murgildurik Lizarrusti mendatera iritsiko da. Uztailaren 20an Lizarrustitik aterako eta Aralar iparraldetik ibiliko dira Albasu herrira iritsi arte. Kontzertuei dagokionez sakandarrei uztailaren 20an Aizpearron, Aralarren, antolatu dutena gelditzen zaie gertuen, Razkinek azaldu bezala. "Leku magikoa da, Aralarren bihotzean, anfiteatro natural batean". Bertara iristeko ere "oso polita" da, eta kontzertuaren kartela lekuaren parekoa da: Eñaut Elorrieta, Alaitz eta Maider, Mikel Urdangarin, Alex Sardui, Olaia Inziarte, Bixente Martinez, Zinbulu Dantza Bertikala eta, Iñaki Epelderen oroimenez, Koldobika Jauregi, Iñigo Aiestaran, Guillermo Olmo, Felix Aiestaran. Eguraldi txarreakin B eta C plana dute: Aralarren lainoa badago Unanun izanen da kontzertua eta euria egiten badu Lakuntzako Elizan. Guardetxeke aparkalekutik bost kilometro inguruko ibilbide erraza da. Irulegiko kontzertua ere "berezia" izango dela esan du lakuntzarrak.

Urmugako zeharkaldian parte hartzeko eta kontzertuetarako sarrerak urmuga.eus webgunean eros daitezke.

"Ideia da jendeak festetan ere parte hartzea"

Pikuxarrek antolatzen duen Irurtzongo eskorga kronoigoeraren berri du Txape Iriarte Ollok. Aurten 25. edizioa jokatu da hilaren 23an, igandearekin, 19:00etan. Bi maila daude: 8-14 urte eta 15etik aurrera. Ordu erdi lehenago eman daiteke izena

Alfredo Alvaro Igoa IRURTZUN

1 Eskorga ikusteak nekea sortzen du?

Galbana. Baina alaitasuna ere bai. Gainbehera erraz eramaten dugu. Igotzen, nahikoa lan izanen dugu. Baina, ongi. Hala ere, eskorga gauza berezia izan da. Lanbide askotan erabilitako tresna da, baserrian, eraikuntzan... Zama bizkarrean eraman beharrean, gurpilaren gainean errazago eramaten da. Alaitasuna sortzen du horrek.

2 Lanetik festetan erabiltzera, aldea dago. Nolaz sortu zen ideia?

Larrazpi gaztetxean geundenean sortu zen. Hamar bat lagun geunden sofatan, festetan zerbait antolatu behar genuela esaka, erronkaren bat. Gaztetxera igotzeko aldapa handia dago, eta hori igotzea kostatzen da. Zama bat gurpil gainean igotzea errazagoa da. Horrela sortu zen erronka. Ideia da jendeak parte hartzea. Lehiaketa, herri kiroleko beste proba bat bezala, lanbidetik sortua da.

3 Sortu, eta 25. edizioa!

Baina pandemiarekin bi urtetan ez zen jokatu. Hasieran,



Txape Iriarte Ollo, probako sustatzaileetako bat.

jende askok parte hartzen zuen. Ondoren, jendeak atzera egin du. Lehia gogorra da.

4 Eskorga, norberak berea?

Antolakuntzak bizpahiru jartzen ditu. Baina bakoitzak berea paingiduta edo nahi duen

bezala eramaten badu, ongi etorria izanen da.

5 Bikoteka jokatzeko, ezta?

Bai. Batek Urtain tabernatik behera egin eta ondoren gora, kultur etxeraino igotzen du. Han aldaketa egiten da, eskorga gi-

datzen duena bertan esertzen da, eta eserita dagoenak, eskorga eramaten du. Bi minutu gehienez, kide bakoitzak minutu bat eramaten du. Baina minutu batean gauza asko kontrolatu behar dituzu. Entzierroa izanen balitz bezala. Ez da bakarrik aldapan gora eta behera egitea, ginkana moduko bat ere osatu behar da ibilbidean. Ginkana aldapa behe-rako abiadura moteltzeko, arriskua eta istripuak ekiditeko da.

6 Zer nolako ginkana da?

Aurrera, txapa batzuen gainetik pasa behar da. Haietatik erori edo pasatzen ez badituzu, txapako 15 segundoko zigorra duzu. Ondoren, bi oholen artetik pasa behar da eskorga, eta erortzen badira, zigorra. Segituan, kide batek besteari, hautsi gabe, sei arrautza pasa behar dizkio, bestela, 3 segundoko zigorra. Beherakoan, sei konoren artean sigi-saga gidatu behar da. Egiten ez den kono bakoitzeko, 5 edo 10 segundoko zigorra dago. Atzera ere, oholen artetik eta txapen gainetik pasa behar da. Denak du zigorra.

7 Komeni da hasierako gainbeherako inertzia baliatzea?

Hobe da abiadura hartzea, baina kontu handiarekin 90 graduko errebuelta dagoelako, eta hor atera zaitezke. Ondoren, txapak daude, eta abiadura kontrolatu behar duzu, gehiegizko abiaduran joanda, ba... tortilla duzu. Jakina, fisikoki ongi egon behar duzu. Sasoia bai, baina festen akaberran izaten da, eta ongi pasatzeko lehia da. Askotan ez da sasoiko egotea, ginkanako probak ongi egitearen zortea eta abilezia ere izan behar duzu. Bestela, alferrik, denbora zigorretan joan zaizulako.

8 Festen akaberan jokatzeko da. Jendea lehiatzeko baldintzetan dago?

(Barrez). Gauean pikeak sortzen dira. 'Halako marka egingen dut'. Gero, apika, egunean bertan atzera egiten dute. Baina jendearen artean ez da apusturik egiten, ez da hainbesteko. Hasierako urteetan lehia handia izaten zen, jendea dena emanda ibiltzen zen. Urte batez, bi lehiakide osasun etxera eraman behar izan genituen. Parranda ondoren minutu batean halako ahalegina egin ondoren, lehertuta bukatu zuten.

9 Antolakuntzan, zenbat?

Ginkanako toki bakoitzean epaile bat dago proba ongi egiten den eta tranparik ez dela egin apuntatzen. Ibilbide guztia poliziaz beteta dago (kar, kar, kar).

10 Beste probekin senidetuta zaudete, ezta?

Laaseko (Biarno) antolakuntza-koekin 2017an senidetu ginen. Haiek hona eta gu hara joaten gara. Duela zortzi urte Galiziako Vila de Cruceskoekin senidetu ginen. Munduan barna eskorgekin probak egiten dira: Belgikan, Uruguain... Laasen ezagutu genuen Urruñako talde bat. Beharbada parte hartzera etorriko da.

11 25. ediziara iristea espero zuten?

Ez, arratsalde bateko lehia izanen zela pentsatzen genuen. Ez zen ezta egitarau ofizialean agertu ere egin, gaztetxekoan bakarrik. Hura betetzeko zen. Pentsa, dena antolatu, kartelak jarri eta hasi baino ordu erdi lehenago eskorga bila genbiltzan.

FESTETARAKO DENA PREST?

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe



gk
DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA

f o

619 821 436
info@gkomunikazioa.eus
www.gkomunikazioa.eus
Foru plaza, 23-1. Altsasu